

Herririk Herri |7|

Mañerrotatik Basogaira bertakoentzat mugatuko dabe trafikoa Otxandion

Ekonomia |10|

Gipuzkoako Kutxak Durangon zabaldu dau Bizkaiko lehenengo bulegoa



Berbaz |9|

Belen Bengoetxea: "Herritarrei aurkikuntza azaldu gura deutsegu"

Ferixa Nausiko idi-probak bertan behera itzi ditue

Elorrio • Gipuzkoako ganaduza-leek tuberkulosi frogarik egin ez dabenez, idiek ezingo dabe Eloorrioko probetan parte hartu. Antolatzaileek idi-probak bertan behera iztea erabaki dabe.

6

Eskalatzailerik onenak batuko ditu Dur&Go txapelketak

KIROLA • Astelehenean hasi eta domekara arte munduko eskalatzailerik onenen topagune bihurtuko da Durango. Eskalada herritarrei hurreratzeko asmoz hainbat boulder ipiniko dabe.

21



eskolana bueltan



2009

•Iurreta

Bereziko aisi-gunea ondo hartu dabe herritarrek

8

•Durango

Garbitasun ordenantza betetzea eskatu dau DAZek

2

•Abadiño

Lau eguneko egitaraua Muntzarazko jaietan

4

AHTaren obrek kaltetutako hiru familia etxez aldatzeko eskaera

Behin-behinean etxez aldatu daiezela eskatu deutso Udalak ADIFI

Durango eta Izurtza arteko mugan bizi diren familiek ez dabe erantzunik jaso

AHTaren desjabetze-aktak sinatu ditue Abadiñon; Atxondon ez, oraingoz

3



Judit Fernandez

Santa Ana Plazako arrastoekin, herriko historia eraikitzen

Durango • Santa Ana Plazako konponketekin batera egindako indusketako aurkikuntzek Durangoren historia hobeto ezagutzeko aukera emongo dabe. Azterketaren ondorioekin lanean

diharduen arkeologo taldeak bisita gidatuak eskainiko ditu irailean zehar. Harresiaren zati baten eta eliza zaharraren arrastoez gainera, beste hainbat aurkikuntza egin ditue.

2

EXCAVACIONES JON

MOTA GUZTIETAKO INDUSKETAK
HONDANINDEGIA

Jon Garzagorta Gallastegui

PROYECTOS, MAQUINARIA - INSTALACIONES
TEL: 943 17 20 54 • MÓVIL: 943 17 20 55



Alberto Murua

Andra Mari, 18 • 48200 DURANGO

tf. 662 270 770

MINKENDU

MASAJEA, AKUPUNTURA
(orratz gabe ere) ETA
MINAREN AURKAKO
TERAPIAK • HIDROLINFA

HERRIRIK HERRI >

DURANGO



Indusketaren zuzendaria Belen Bengoetxea arkeologoa izan da. Judit Fernandez

Santa Anako indusketara bisita gidatuak, irailean

Santa Ana plazako indusketetan jardun daben arkeologoek aurkikuntzaren nondik norakoen barri emongo dabe, hile osoan, bisita gidatuetan

Arkeologo talde batek buru-belarri jardun dau hilabeteotan Santa Ana plazan aurkitutako arrastoak aztertzen. Herriko hirigunean egin daben indusketak jakinmina sortu dau herritarren artean. Aurkikuntzaren garrantzia kontuan hartuta, bisita gidatuak bitartez herritarrei aztarnen barri emotea erabaki dau Udalak.

Aurkikuntza

Alde Zaharra gune honetan harresiaren zati bat eta XV. mendekoa izan leitekeen Santa Ana eliza zaharren arrastoak topatzeaz gainera, enterramenduak, kanpaiak egiteko moldea eta labea, errearen kanalizazio zaharrak,

txanponak eta beste hainbat material aurkitu ditue.

Santa Ana plazako aurkikuntzaren garrantzia kontuan hartuta, Udalak bisita gidatuak antolatu ditu

Bisita gidatuetan parte hartzeko beharrezkoa da aurretik Turismo Bulegoan erreserba egitea

Izen-emotea

Bisita gidatuaren arduradunak indusketan parte hartu daben arkeologoak izango dira: Belen Bengoetxea (azterketaren zuzendaria), Teresa Campos, Iñaki Pereda eta Fidel Navarrete.

Bisita gidatuetan parte hartzeko aurretik erreserba egin beharko da Turismo Bulegoan (94 603 39 38). Barikueta, irailaren 11, 18 eta 25ean bisitak arratsaldean izango dira; 19:00etatik aurrera. Asteburuetan, irailaren 12, 13, 19, 20, 26 eta 27an indusketak goizez bisitatuko ditue; 10:30etik aurrera. ■ J.G.

BERRIZ

Garbitasuneko udal ordenantza betetzea eskatu dau DAZek

Garbitasuneko udal ordenantza bete daie la eskatu dau Durango Alde Zaharra (DAZ) elkarteak. "Zaborra izteko ordutegiak zehazten ditu araudiak, baita ontzi bakotxari zer zabor jagokon be", gogorazaz deutsee herritarrei. Udalari, bestalde, "preminazko baliabideak" jarri eta araudiak azaldutako beharrak "zuzen" betetzea eskatu deusie.

"Preminazko baliabideak" erabiliz, Udalak araudiak dinona betetzea gura dabe

"Hiri moderno baten, txakur bat zaborretan muturra sartzen egoteari hirugarren mundukoa deritzogu", dinoe Kanpantorrotan ikusitako irudia gogora ekarriz. Udal araudiak dinonez, "euren zaintzaren arabera zaborrontzien aldizkako garbiketa egingo dabe jagoken zerbitzuek, garbitasun baldintza zuzenak mantentzeko", DAZek gogoratu dauen moduan. ■ A.B.

Urrirako prest gura ditue webgunea eta irudi korporatiboa

Berrizko Udalak webgunearen diseinua eta funtzionatzeko modua aldatuko ditu. Jakinarazo dabenez, dagoeneko eskuarteetan daukie diseinu barria, eta, Javier Azpitarte alkatearen esanetan, "datorren hilean martxan" ipintzea gura dabe.

Batez be, webgunearen funtzionamendua hobetzea dabe helburu, egunerokotasuna oinarri hartuta. Webgunearen kudeaketa Udalaren esku geratuko da eta, horrela, bitartekaririk barik be sartuko ditue udal jardueren inguruko albisteak, berehalakotasuna hobetuz. Diseinuari jagokonez, erabilpen errazekoa izan daitela da helburu nagusia.

Horrez gainera, lan-talde bat Udalaren logo barria prestatzen dabil. Logoak hiru ideia uztartu behar ditu: herria identifikatzeko balio daiala, kanpotik datozen lagunen dako atsegina izan daitela eta euskarri guztietara moldatzeko modukoa izan daitela. Logoa laster prest izango ei dabe. ■ J.D.

IZURTZA

Ezpatadantzari Eguneko afarirako irailaren 7a arte emon leiteke izena

Irailaren 12an Izurtzan ospatuko daben Ezpatadantzari Eguna amaitzeko antolatu daben afarira joateko txartelak irailaren 7a arte dagoz eskuragai, udaletxean. Eskualdeko dantzari eta herritarrek elkartuko dira herriko plazako mahai bueltan.

Dantzarien elkargune izaten da urtero Gerediaga elkarteak aldi bakotxean Durangaldeko herri batean antolatzen dauen ospakizuna. Ezpatadantzari Egunaren harira, azkeneko urteetan bananduta izan diren hiru dantza talde berreskuratuko ditue Izurtzan. Holan, beste zazpi herritako dantza taldeekin batera jardungo dabe, iluntzeko emanaldian, Mendigain dantza taldean aritu izan diren hainbat adinetako dantzariak. ■ I.E.

GARAI

Lanak emonda, laster hasiko dira Etxeitaberako bidea konpontzen

Garaiko Udalak Etxeitaberako bidea konpontzeko lanak adjudikatu zituen uztailean, eta "datozen egunetan" itxaroten dabe lanok egiten hasia, udal ordezkarien arabera.

Egitasmoak 67.441 euroko aurrekontua dauka, eta Construcciones Ekin enpresak burutuko dau, berakegindako 48.884 euroko eskaintza Udalak onartu eta gero.

Gontzal Sarrigoitia alkateak argitu deuskunez, lanak "15 egunen buruan hasia" aurrikusi dabe. ■ M.O.

Etxeitaberako bidearen lanak "15 egunen buruan hasia" itxaroten dabe

katerin ardoak
iñaki uribe
KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427
saltsan
SALTSAN.COM

URTXINTXA
HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK
Aukera ezazu hemen zure erregalua
Andra Mari kalea, 9 DURANGO Tel.: 94 681 50 17

Hemen agertu gura badozu
deitu!
94 621 79 02



DURANGALDEA

AHTa egiteko zulaketek Gasteiz Bideko herritarren kezka handitu dabe

Behin-behineko etxebizitza emoteko Durangoko Udalaren eskariari ez deitso erantzun ADIFek

Abiadura Handiko Trenagaz (AHT) lotuta, Durangoko Tabira auzoan aurreikusi daben tunela egiteko zulaketak laster hasiko direnez, "oraindino eta arduratuago" dagoz Gasteiz Bideko 20ko eta 22ko bizilagunak.

Bizilagunak: "Orain hasi da Udala gutaz arduratzen, baina luzaro gitxietsi gaitue bai Udalak baita ADIFek be"

Lanok hasi eta berehala "ara-zoak" bueltatuko direla seguru dago Agustin Duran, "orain bertan egoera eusteko modukoa" den arren. "Gure bizi baldintzak hobetzeko ez seguru, baina, zemento pista egin da, eta orain ez da hainbeste hauts harrotzen". Alex Barrenetxeak be gogoratu dau zulaketetan "egunez eta gauzez" ibiliko direla esandutse-

la Udalak, eta horren aurrean zer gertatuko den galdetu dau. Dinonez, "orain hasi dira gutaz arduratzen, baina denpora askoan gitxietsi egin gaitue". Lurrant-en bitartez jakin eben, bestalde, tren-a etxetik 100 metrora barik, 40 metrora pasatuko dela. Udaletik bape informaziorik jaso ez izana salatu dau Barrenetxeak.

Duranek dino ez Udalak ez Adif-ek ez deitsee la "jaramonik" egin: "Eten bako protesten ondorioz egin deusku kasu Udalak".

Behin-behineko bizilekua

AHTagaz lotutako lanon eraginez, bizilagunoi obrakiraun bitartean behin-behinean beste etxebizitza bat emoteko Udalak ADIFI egindako eskariak dau erantzunik jaso. Egoera "jasanezina" izan arte joateko asmorik ez dauka Duranek berak; Barrenetxeak, aldiz, "irtenbide" bat gura dau, seme-alabak daukaz-eta. ADIFek



Gasteiz Bideko 20ko eta 22ko bizilagunak arduratuta dagoz AHTaren lanengaitik. Judit Fernandez

erantzun dauen bakarra izan da obren arduradunari agindu deusala "kontu handiz betetzea" ingurumen-integrazinoko agiria- ren eranskinean ingurumena babeste aldera jasotako neurri zuzentzaile guztiak. Halan dino M^a Jose Balier alkateordeak: "Hori betetzen den ikusi behar da, eta zer egoeratan diren bizilagunak".

Obra-gunea kirol-ekipamendu sistema orokor baten alboan dagoela be gogorarazo deusie ADIFI, "erabiltzaileei eta udal zerbitzu horren eskaintzari be zuzeneko kaltea eraginez".

AHT Gelditu Elkarlanak neurrioi ez deritze nahikoa, eta galdetu dabe ia zer gertatuko den lanak amaitzerakoan. ■ J.D. / A.B.

AHT Gelditu! Elkarlanak ez deritze nahikoa neurrioi, eta galdetu dau ia zer gertatuko den behin lanak amaituta



Eguaztenean Abadiñon (goian) eta atzo Atxondon (behean) egin zitueen protestak. K. Aginako

Abadiño- Atxondo tarteko AHTaren desjabetze-aktak

Irailaren 3an, goizean, Atxondon, eta egun bat lehenago Abadiñon, udaletara deitu zitueen Abiadura Handiko Trenaren Atxondo-Abadiño tarteko lanak burutzeko euren lurren desjabetze-aktak sinatzera behartutako lurjabeak.

Kasu bietan, lehenago be beste deialdi bat eginda zeukan Espainiako Gobernuaren Bizkai-ko Ordezkaritzak, eta bi herrietan aste honetarako egin dabe bigarren deialdia.

Desjabetza aktak sinatzera behartuta dagoela azaldu dau Abadiñoko alkateak

Dabid Cobos alkatea ez zen agertu, eta bertan behera itzi eben deialdia Atxondon

Atzo zein eguaztenean, goizeko 08:30ean, Estatuko Trenbide Azpiegitura Administra- tzailearen -Adif enpresa publi- koaren- ordezkariek Udaletxera ailegatzera, *AHTrik ez, inpo- saketariek ez eta Desjabetza, lapu- rreta* lemak aldarrikatzen zitueen herritarrek izan dira Udaletxeko sarreran.

Atxondoko atzoko deialdi- ri jagokonez, Dabid Cobos alka- tea ez zen deialdira agertu, eta bertan behera itzi dabe ekital- dia; hirugarren deialdi batera- ko data zehazteke.

Abadiñoko Jose Luis Nava- rro alkateak, aldiz, "aktak sina- tzera behartuta nago" adierazi eta halantxe egin eban eguaz- tenean aurkeztu eutsiezen doze- na bat desjabetze agiriekin. Herritarrek euren lurren desja- betzak sinatuta, Udaletxera eroan deusiezen aktak sina- tzea beste aukerarik ez dauela eduki dino Navarrok. ■ I.E.

ABADIÑO

Abuztuko azkeneko zapaturako plana

Asko izan ziren abuztuaren azken zapaturako Errogatiba Eguna ospatu eben abadiñarrak

Ohiturak agintzen dauenez, goizean goizetik, 09:30ean abiatu ziren Urkiolarako bidean Abadiño hainbat auzotako erromesak. San Rokeren irudia Andra Maria basilikatik atera eta Urkiolarainoko prozesinoan joan ziren abuztuko azken zapaturako. Bidean hamarretakoa egin, eta eguerdirako Urkiolako tontorrean batu ziren Errogatiba Egunez gerturatutakoak.

Meza nagusia eta, ohiko eran, Talde Batuaren dantza saioa eta ardao banaketa izan ziren Urkiolan eguerdia arte. Behekaldeko

argazkian ageri denez, urtero legez, asko izan ziren ardao banaketara joan ziren herritarak.

Bazkaria eta bazkalosteko dantzaldia izan zituzten Urkiolan, eta, behin Abadiñora bueltatuta, Lotxo taldearen emanaldiagaz emon eben aurtengoz amaitutzat Errogatiba Eguna. ■ I.E.

Herriko dantzarien saioa eta bazkaria izan ziren, besteak beste, Errogatiba Egunean



Ardao banaketa egin eben, ohitura jarraituz. Judit Fernandez



Auzotarren parte-hartzea bultzatzea dau egitarauak helburu. Muntzaratz Auzo Elkartea

Lau eguneko jai-egitaraua prest Muntzaratzen

Gaur iluntzean, 19:00etan, altxatuko dabe donien atxa, eta irailaren 8a arte nabarmena izango da jai-giroa Muntzaratz auzoko Andra Marietan

Irailaren 5erako, zapaturako, antolatu dabe egitaraurik zabalena Muntzaratzen. Egun horretan ospatuko dabe Andra Mari jaietako Mozorro Eguna.

Goizean goizetik hasita, auzoko umeendako proposatutako ekintzak izango dira jaietako zapaturako: lehenengo hitzordua buruhandiek izango da, 11:00etan, eta puzgarriak be izango ditue aukeran, 12:00etatik aurrera, Muntzaratzera gerturatuko direnek. Mozorro lehiaketan izena emon ahalko dabe, gainera, 12:00etan hasita.

Paella lehiaketa, haurrentzako tailerrak, kale antzerkia, su artifiziaiak, karaokea eta erromeria be izango dira zapaturako.

Zapatua da jaietako Mozorro Eguna, eta umeak izango dira protagonista nagusi

Jaiak, baina, gaur hasi eta irailaren 6an eta 8an be ospatuko ditue Muntzaratzen, eta lau egunetan nabaritu da jai-giroa Andra Mariei eskerrak.

Donien-atxa altxatu osterako, gaurko 20:30erako antolatu dabe parrillada, eta 22:00etatik aurrera izango da erromeria.

Zapatuan legez, domekan be buruhandiek zabalduko dabe eguna, 11:00etan, eta herri-bazkari aurrerako zein osterako, besteak beste, ponyak, xake partidak, pailazoak, diskoteka eta txokolate-jana izango dira.

Irailaren 8an, martitzenean, 12:00etako meza eta 12:30etako ohiko dantza ikuskizunagaz bukatuko dira Andra Mariak, aurtengoz, Muntzaratzen. ■ I.E.

Durangaldeko Behargintza
Eskualdeko Garapen Agentzia
Agencia Comarcal de Desarrollo
Municipalidad de la Hermandad de Durango
Durangoko Herriko Herriaren Antzarkomunitateak

EUROPAKO ERKIDEGOA
Europako Gizarte Funtzia

BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia
Larveta Irribankuntza Sabe

2009/2010 IKASTURTERAKO PRESTAKUNTZA ESKAINTZA

CNC MEKANIZATUAN
TEKNIKARIA 225 ordu

ENERGIA BERRIZTAGARRIEN
INSTALATZAILEA 315 ordu

Izena emateko epea: 2009ko irailaren 25a arte
Informazio gehiago Durangaldeko Behargintzan



Durangaldeko Behargintza Laubideta, 6 Durango tf: 94 623 25 22
Orduetgia: asteleheneretik ostiralera 08:00etatik 15:00etara

www.amankomunazgoa.com

ZALDIBAR

Gaztelekua eta Zapaturak jai-egitaraua

Futbol-zelai zaharreko aldagelak egokitu ditue Zapaturak eta Gaztelekuen egoitza izateko

Orain arte eskolaren eremuan zeukien haur eta gazteen aisialdirako taldeek euren egoitza, baina irailetik aurrera Olazar futbol-zelako aldagelatan egokitutako lokaletan izango dabe lokala.

Euren ekintzak antolatu eta buruzteko lokal barria izango dabe ikasturte honetan Zapaturak eta Gaztelekua

Egoitza aldaketa honen helburuetako bat, orain arte legez, haurrek euskara eta aisialdirako denpora eskolagaz bakarrik ez lotzea da, alkateak dinonez. Men-

diolarairen berbatan, aisialdi taldeen egoitza be eskola eremuan izanda euskara eskolagaz lotutako zozer dela ulertzen izan dabe haurrek orain arte. Ereduak desberdinduta, aldiz, euskara eskolatik kanpoko hartu-emonean erabiltzera ohitu gura ditue haurrak eta gazteak.

Berbalagun

Ikasturte honetan euskaraz lagun arteko giroan berba egiteko sortuko den taldean izena emoteko epea zabaldu dabe: irailaren 18a arte emon ahalko da izena. Informazio gehiago Udaleko Euskara zerbitzuan dago eskura. ■ I.E.

ATXONDO

Astebete gehiago edukiko ditue igerilekuak zabalik aurtan

Uda erdian, uztailean, udal igerilekuak itxita edukitzera behartu zituen arduradunak hodi bat apurtu izanak. Erabiltzaileek ez eben igerilekuetara joaterik izan astebetean, eta horregaitik, Udalean azaldu dabenez, irailaren 13a arte barik, astebete geroago arte, irailaren 20a arte, izango dabe igerilekuak zabalik.

Herriko zein Atxondotik kanpoko erabiltzaile asko hartzen ditu udaro Apatako igerilekuak. Urtez urte nabaritu ei dabe geroago eta bisitari gehiago gerturatzaren direla Apatako haizetarako igerilekura. Igerileku itxita egoteagaitik jaso dituzten kezak guztiz ulergarritzat jotzen ditueela dinoe udal ordezkariak. ■ I.E.



IRAILAK 4, BARIKUA

- 19:00etan, Txopo-altzatzea
- 20:30ean, Parrillada
- 22:00etan, Berbena

IRAILAK 5, ZAPATUA: MOZORRO EGUNA

- 11:00etan, Buruhandiak
- 12:00etan, Puzgarriak eta kartsak
- 12:00etan, Mozorroen izen-ematea eta hasierako argazkia
- 14:00etan, Paellen aurkezpena
- 16:00etan, Mus eta tute txapelketak
- 17:30ean, Merkatu txikia
- 18:00etan, Haurrentzako tailerrak
- 19:30ean, Kale-antzerkia
- 21:00etan, Tortillen aurkezpena
- 22:30ean, Su artifizialak
- 23:00etan, Karaokea eta berbena

IRAILAK 6, DOMEKA

- 11:00etan, Buruhandiak
- 11:00etan, Ponyak
- 12:00etan, Xakea (aldibereko partidak)
- 13:00etan, Pailazoak
- 14:30ean, Herri-bazkaria
- 17:00etan, Disko Txiki
- 19:00etan, Txokolate-jana eta paineluak erretzea

IRAILAK 8, MARTITZENA

- 12:00etan, Meza
- 12:30ean, Dantza ikuskizuna

ELORRIO

Ferixa Nausiko idi-probak bertan behera iztea erabaki dabe

Gipuzkoako ganaduzaleek ez ditue Aldundiak dekretuz eskatutako tuberkulosi frogak eginda

Aurtengo Ferixa Nausiko idi-probak bertan behera itzi ditue. Izan be, Bizkaiko Foru Aldundiak animalien osasunari eta ongizateari buruzko dekretua onartu eta argitaratu eban abuztuaren 13an. Dekretu horrek Bizkaiko herrietako idi-probetan parte hartzeko hainbat baldintza zehazten zituen, batez be, tuberkulosiaren gainekoak. Gipuzkoako ganaduzaleek ez ditue frogak egin, eta ezingo dabe parte hartu. Gipuzkoa da idi-probei jagokenez mailarik handieneko herrialdea, eta "kalitate handiko idi-probak antolatu ezin doguzenez, gurago izan dogu aurten idi-probarik ez antolatzea", azaldu dau Niko Moreno alkateak.

Nekazaritza Sailak garatu dauen dekretua behi-azienden tuberkulosiaren gainekoa da. Jasozten dauenez, "ganaduaren saneamenduaren gaineko neurriak indarrean ipini zirenetik, tuberkulosi maila ikaragarri jaitsi da herri kiroletan parte hartzen daben idien artean". Halan be, hiltegiatara idi-probetatik dato-

zen idien artean tuberkulosia "sarritan" aurkitu dabenez, neurriak zorrotzu egin ditue.

Mallabian bardin

Mallabiko jaietako idi-probak be bertan behera geratu ziren. Aldunditik jakinarazi eutsen apuntatutako idi bikoteak ezin ebela parte hartu, ez dabelako tuberkulosi frogarik egin. Bizkaiko idi bikoteak aurkitzeko denpora nahikorik ez, eta ekitaldia suspenditu eben. Udal ordezkariak Gipuzkoako eta Bizkaiko aldundien arteko "koordinazino falta" salatu dabe. ■ J.D.

Maila handiko probarik antolatu ezin dabenez, gurago izan dabe bat be ez antolatu

Mallabian arazo bera izan eben; Gipuzkoako eta Bizkaiko aldundien "koordinazino falta" salatu dabe antolatzaileek

Giro ederrean ospatu zitueen Etxebarriko San Agustin auzoko jaiak

Normalean baino ekitaldi gitxiago antolatu arren, jai giro ederrean ospatu zitueen barikuan Etxebarriko San Agustin auzoko jaiak bertako bizilagunek. Eguerdiko mezaren ostean, arratsaldeko 18:30 inguruan, borondatez eta indarrez hornitutako hainbat gaztetxok jaietan zegozela lau haizetara zabalitzen eban txopoa altxatu eben, bertaratutakoen animoen eta txaloen artean.

Ondoren, trikitilarien txanda iritsi zen. Triki-poteoak musikaz alaitu zituen auzoko bazter guztiak. Azkenik, jaiak errematatzeke, elizpean batu ziren auzotarrak afaritara.



J.Fernandez



Abuztuaren 13an argitaratu eban Bizkaiko Aldundiak osasun neurrien gaineko dekretua.

Lokal barriak Ludotekarentzat eta Euskara Zerbitzuarentzat

Ludoteka Iturri kultur etxetik San Juan kaleko lokal batera aldatu dabe; Euskara Zerbitzuak lehengo Turismo Bulegoan zabalduko ditu atek

Hasierako urtea Iturri kultur etxean emon ondoren, Ludotekak San Juan kaleko lokal batean (lehenago Schlecker denda zegoen tokian) zabalduko ditu atek. Asmoa urritik aurrera martxan ipintzea da. Iturrin zeukien lokal behin-behinekoa zen, toki barri eta egokiagoa aurkitu artekoa. San Juan kalean "zerbitzua egonkortu egingo dogu, eta bultzada barria emongo deusagu", azaldu dau Niko Moreno alkateak.

Azpiegiturak 90.000 euroko aurrekontua eskatuko dau.

Iturriko lokalak Intxorta astialdi taldeagaz partekatzen eban Ludotekak. Kokaleku barriak hainbat abantaila daukaz. Aurreko lokal baino handiagoa da eta prestakuntza aldetik be osatua. Bestalde, zentratuago dago eta heltzeko errazagoa da. Igaz 41 gaztetxok parte hartu eben. Ludoteka nork kudeatuko dauen oraindino ez dago erabakita.

Urriaren hasieratik aurrera Euskara Zerbitzuak be toki barria estreinatuko dau. Udaletxeko azken solairutik lehen turismo bulegoa zegoen tokira -Berrio Otxoa kalera- eroango dabe. Udaletxetik nahiko gertu dago, halanbe. Zerbitzu hori "gehiago ezagutaraziko dogu", dino Morenok. Azpiegitura guztiak eginda dagoz Turismo Bulegoa zegoen sasotik. Beraz, materiala toki batetik bestera eroatea bakarrik falta da. ■ J.D.



Ludoteka lehenago Schlecker denda zegoen lokalean egokituko dabe urritik aurrera.



OTXANDIO

Bolatokia amaitzeko diru-laguntza jaso zain dago Udala

Eguraldi txarraren ondorioz lanak atzeratuta, laguntza galdu eben; aurten berriro eskatu dabe

Herriko bolatokia eraberritzeko lanak ez dira oraindino amaitu. Horretarako, Aldundiko zein Jaur-laritzako diru-laguntza behar dabe. Laguntza hori jasotzea aurreikusitakoan, baina arazo batzuk tarteko oraindino ez dabe jaso.

Diru-laguntza jaso ez izanak 152.000 euroko defizita eragin eban Udalaren urte amaierako likidazioan

Igazko azaroan Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaur-laritzak diru-laguntzak emongo zitueela konfirmatu eben. "Erantzuna nahiko berandu jaso arren, asmo-gaz aurrera jarraitzea erabaki genduen", gogoratu dau Aritz Otxandiano alkateak. Beharrezko tramite guztiak ahal bezain arin burututa, lanak esleitu zitueen. Emoten eban lanak urtea amaitu

aurretik bukatuko zitueela, baina eguraldi txarra egin eban eta, ezinbestean, lanak atzeratu egin behar izan zitueen.

Defizita eragin dau

Luzapena eskatu eben, baina ez eutsen emon. Beraz, diru-laguntza galdu egin eben. Horrek defizita eragin eban urte amaierako likidazioan: 152.000 euroko defizita, hain zuzen be.

Aurten be eskatu dabe aurreikusitako gastuendako gordetzen daben diru-laguntza hori. Oraindino ez dabe ezelako erantzunik jaso: "Laster jasotzea itxaroten dogu, bolatokiko lanak ahal bezain arin amaitzeko moduan egon gaitezen".

Aldundiak dekretu bat onartu eban aurreikusitako gastuendako diru atal bat gordetzeko. Herriko argiteria hobetzeko be toki berean egin dabe diru-laguntza eskaria (33.000 euro). ■ J.D.

MAÑARIA

Antenen dekretua betetzeko borondatea dauka Udalak

Dekretu bitartez emon eben agindua betearaziko dabela nabarmendu dabe Udaleko ordezkariak

Auzotarrek gogorazi eben joan zen astean, Arrueta auzoan Vodafone enpresaren telefono mugikorren antena tokialdatzeko Udalak dekretuz emon eban epea amaitu dela. Epemuga gogorazi eta Udalagaz gai hori lantzeko batzarra eskatu eben auzotarrek.

Arruetako auzotarren ordezkariak batzeko asmoa agertu dabe Udaleko ordezkariak asteon

Udalaren borondatea, bere garaian legez, enpresari antena lekualdatu eta gainerako telekomunikazio antenak dagoen eremuan kokatu daian agindua betearaztea dela erantzun dabe asteon udal ordezkariak.

Hartu beharreko neurriak aztertu eta Arruetako auzotarrek batzartzeko asmoa agertu dau asteon Gobernu Taldeak: herriko arau subsidioarioak errespetatu eta antena jagokon lekuan kokatu daian, esan dabenez. ■ I.E.

Trafikoa mugatuko dabe Mañerrotatik Basogaira

Tramu horreetan pibote hidraulikoak ipiniko ditue eta bertakoek bakarrik sartu ahalko dabe; asmo hori gauzatzeko ordenantza landuko dabe



Pibote hidraulikoak ipintzeak 275.000 euroko aurrekontua eskatuko dau, aurrekusi dabenez.

Udalak herri barruko ibilgailuen joan-etorria mugatu gura dau. Aurretik alde zaharrea egin eben moduan, etorkizunean Elizoste inguruan (Mañerrotatik eta Basogai arteko tartea) pibote hidraulikoekin itxiko dabe. Gune horretako bizilagunak ONA txartelaren bitartez sartu ahalko dira. Horregaz batera, ibilgailua izteko hiru aparkaleku barri egingo ditue. Lan horreek 650.000 euroko inbertsioa eskatuko dauela aurrekusi dabe. Oraindino, baina, ez dabe hori guztia ordutegiak, zamalana...-erregulatuko dauen ordenantzarik garatu.

Hiru aparkalekuetatik bat dagoeneko eginda dago, Elizabarriko biribilgune inguruan dagoena, hain zuzen be. Bigarrena igerilekuaren ondoan egingo dabe, eta hirugarrena Iturrizar

etorbidean, etxebizitza sozialak eraiki diren inguruan. Gainera, Elizabarriko aparkalekutik herri barruko errepedierako tartea bidegorriagaz lotuko dabe.

Aparkalekuak "toki klabeetan egingo dira", dino Aritz Otxandiano alkateak: "Zeanuritik, Gas-

Elizabarriko aparkalekuak gainera, beste bi egingo ditue, igerileku ondoan eta Iturrizar etorbidean

teiztik eta Durangotik datozenek eskura edukiko ditue. Handik herriko plaza nagusira bost minutu baino gutxiago dagoz".

Lan horreek guztiak lau faseetan burutuko ditue: ONA txartelaren gestioak eta pibote hidraulikoak ipintzeak 275.000 euro eskatuko ditu; aparkaleku biek

345.000 euro eta Elizabarriko bidegorriak 30.000 euro.

Aldundiari eskatu deutsien diru-laguntza, gehienez, 100.000 eurokoa da. Dirua jasoz gero, 2010. urtea amaitu baino arinago gastatu beharko leukie, eta lehen faseagaz hasiko litzatekez. Urtea amaitu aurretik erantzuna jasotzea itxaroten dabe.

Turismo Plana

Asmo horreek guztiak Turismo Planaren zati dira. Turismoa erakartzeko egitasmoa gauzatu aurretik pentsatuta egon behar da trafikoa zelan bideratu: "Otxandio herri txikia da eta kotxeen erabilera sarritan ez dago justifikatuta. Gune batzuk erdi-peatonal geratzea gura dogu. Gune horreetako herri diseinuan oinezkoek ibilgailuek baino garrantzia handiagoa daukie". ■ J.D.

GALDERA:
Zailtasuneko Munduko Txapeldun den zein eskalatzaile dator Durangora?

Izena: _____
Tel.: _____

Makatzeta jabetzerako lagun birendako afari-txartela zotz egingo dogu.

Bialdu erantzunak: Bixente Kaparanga, 9 - Iurretan edo astelekean anboto@anboto.org helbideetara, Hilaren azken alean agertuko da irabazlea.

Hileko irabazlea: Asun Castillo (Atxondo)

Makatzeta
ARRAZOLA
Arrazola-Atxondo
Tel.: 94 658 29 31

DIURRETA



Umeendako jokoak, mahaia eta erretegiak jarri ditue, besteak beste, Berezin. Judit Fernandez

Berezin atondutako aisi-guneak lehenengo bisitariak hartu ditu

Abuztuan erabiltzeko moduan egon da 25.000 metro koadroko ingurua

Kirola egiteko zirkuituarekin, mahaiekin eta erretegiekin hornitu dabe Berezin ingurua (Arandia zubiaren eta Arriandi artean), eta hainbat bisitari hurre-ratu da eguna pasatzera. Umeendako jokoak eta askotariko zelaia bebadago, urtaroko putzua ez eze.

Abuzturako gertu izan dau Udalak 25.000 metro koadro inguru batzen dituen ingurua. Askorentzat ezezaguna den inguruari

Udalak 290.000 euroko aurrekontua erabili dau, baina Aldundiak ia 200.000 euroan finantzatu ditu beharrak

“balioa” emon gura izan deusie, eta inbertsinoari aurre egiteko Foru Aldundiaren laguntasuna be izan dau Udalak. Denera, 290.000 euroko inbertsinoa eskatu dabe lanek eta Aldundiak ia 200.000 euroan finantzatu ditu (%60). Berezin inguru hori lehenengoan mantendu eta herritarrei eskaintzea izan dabe helburu udal arduradunek. Paisaian esku hartu dabe, baina bertako pagadia ukitu barik. ■ A.B.

DI MALLABIA

Giro bikainean ospatu ditue jaiak Zengotita auzoko bizilagunek



Joan zen asteburuan hasi eta astelehena arte hainbat ekitaldi antolatu ditue Zengotita auzoan San Roman Nonatoren omenez.

Jai egitarauan herri-kirolek ikusmin handia sortu eben joan zen zapatuan, auzora bertaratutako en artean. Asto probak ikustera be lagun ugari gerturatu zen. Lehiaren irabazlea Satsibar izan zen. Jaien amaieran jeneroz betetako karretilaren zozketa egin eben. 1581 zenbakiaren jabeak eskuratuko dau saria (ordezkoa 2182). ■ P.M.

Abesbatzak asteburu-pasa joango dira

Jasokunde eta Mendibil abesbatzek Espinosa de los Monteros herrira irteera antolatu dabe datorren astebururako. Bi taldeetako 60 lagunek irteeran parte hartzeko izena emon dabe. Datorren zapatuan, irailaren 12an, eguerdian irtengo dabe Burgosera.

Taldekideek azaldu deuskuenez, asteburuan bertako jaiak izango dira. Herriko aterpetxean lo egiteko lekua hartu dabela jakitera emon deuskue irteeraren antolatzaileek

Domekarako be egitaraua prestatu dabe. Inguruak ezagutzeaz gainera, Espinosa de los Monteroseko leizea ezagutuko ditue. Abesbatzetako kideez osatutako taldea izanda, bidaia honetan doazen lekura doazela, kanturik ez da faltako. ■ P.M.

DI DURANGO

Dantzaldiak antolatu ditue iraileko domeketarako Ezkurdin

Ezkurdi plazak dantzaldiak hartuko ditu iraileko domeketan be. Udaleko Adinekoen Sailak gonbidatuta, etzi hasi eta irailaren 27a bitartean, domekara, dantzan jarduteko aukera izango dabe Durangoko zein inguruko herritarrek. Trio Menta taldeak girotutakoa da antolatutako lehenengo dantzaldia, irailaren 6an. Trio Top 90 eta Rex Orkestra izango dira, hilaren 13an eta 20an, hurrenez hurren, eta amaitzeko, irailaren 27an, Trio Moby Dick taldearen txanda izango da. Aitatu doguzen dantzaldiok 18:30ean hasi eta 20:30 arte iraungo dabe, eta, euria eginez gero, Azoka Plazara lekualdatuko ditue. Halantxe jakin eragin dabe udal arduradunek.

Guatemalarako 5.815 euro

Durangaldeko eskoletan 5.815 euro batu ditu Bateginez gobernu kanpoko erakundeak, *Ikasle bat konpromiso bat* kanpainagaz. Eskualdeko 14 eskolatan batu den dirua San Miguel Pochutan (Guatemala) bideratzen dabilzen farmaziarako erabiliko dabe, osasun sustatzaileen trebakuntza eta bestelako hezkuntza egitasmoak babesteko ez eze. Orain 15 urte hasi zen kanpaina, Guatemalarako botikak eta tresnak batuz. Baina, urteak aurrera eginda, moldatu egin dabe “eraginkorrago” egiteko. “Orain, Pochutan sortutako gastuei aurre egiteko batzen dogu; han garatzen dira Bateginezen egitasmoak”. Garatutako proiektuei buruzko CDak lagundu dau oraingoan kanpaina; Bateginezi buruzko erakusketa be sortu dabe.

DIURRETA

‘Urrijena’ ospatzeko entseguak hasiko ditue datorren martitzenean

Urrijena ospatuko dabela-eta, lehenengo entsegua izango dabe Iurreta kofradiako dantzariak martitzenean, irailaren 8an, 20:00etan, Aita San Migel plazan; 15ean, barriz, kofradia guztietako dantzariak entsegu orokorra deitu dabe. Bost urterik behin ospatzen dabe herriko dantzariak *Urrijena*, urriaren bigarren domekan. 18 talde inguru batzea aurreikusitako dabe, eta, ohi legez, 60 urtetik gorako dantzariak omenaldia egiteko be aprobetxauko dabe; aurtan, nagusienak 91 urte daukaz.

DI ELORRIO

Athletic-Eibar futbol partidua, Nikaraguara begira



Superligan jokatzan daben Athletic eta Eibarko emakumeen futbol-taldeek norgehiagoka jokatuko dabe, irailaren 8an 19:00etan, Eleizalden. Elorrioko futbol elkartearen ekimenez sortuta jokatuko den partiduan ateratako dirua, barriz, Kainabera GKEak Nikaraguan “etxe duinak” eraikitzeke daukan proiektua laguntzera bideratuko dabe. Etxeetako hormetako arrakaletan bizi den zomorro batek transmititzen dauen ‘chagas’ gaixotasunari egin gura deusie aurre Kainaberakoek, besteak beste, Mozonte herrian abiatutako proiektuagaz.

BERBAZ >

“Durangoko historiaren zati handi bat berreskuratu dogula esan leiteke”

Santa Ana plazako obretan hainbat aurkikuntza arkeologiko egin ditu Belen Bengoetxearen lan-taldeak.



Belen Bengoetxea •

Arkeologoa

- EHUko irakaslea
- 42 urte

Durango Erdi Aroan fun-
datu ebenetik historian
zehir gertatutakoaren
lekuko dira lur azpian gelditu-
tako arrastoak. Belen Ben-
goetxea arkeologo mañaria-
rrak hiri-arkeologiaren inguru-
ko tesian Durango hartu dau
ardatz. Santa Anan topatuta-
ko arrastoen azterketa egiten
dihardu orain.

Zelan baloratzen dozu Santa Anan egindako aurkikuntza?
Emaizta oso onak izan direla-
koan nago. Tarte kronologiko
oso handia daukagu hor.
Durangoko historiaren zati
galanta errekuperatu dogu.

Aurkikuntza hain garrantzitsua izatea itzaroten zendueen?
Durangoko area arkeologikoa,
aztarnategi moduan, Eusko
Jaurlaritzak kultura-ondasun
moduan izendatu dau, eta
gorengo mailako babes dauka
Alde Zaharreko inguru
horrek guztiak. Obrak egiten
direnean, aurretik, azterketa
arkeologiko bat egin behar izat-
en da. Horren aurretik beste
20 interbentzino arkeologiko
egin dira.

Prozesua zein izan da?

Proiektu arkeologikoa aurkez-
tu genduen Aldundian. Kon-
trol arkeologikoa egitea zati
baten, eta zundaketa zabal bat
egitea erabaki genduen. 100
metro koadro baino gehiago
zabaldu doguz bagenkielako
hor zeozer bazegoela.

Zer topatu dozue bertan?

Topatu dogun gauzarik zaha-
rrena errekarren bide zahar bat
izan da, meandro bat eginez.
Erdi Aroan hainbat materiale-
gaz bete egin eben, eta gainean
eraiki. Obra garrantzitsua izan
zen, hiribildu legez indarra
emoteko erreka beste modu
baten kanalizatuz.

Zer eraiki eben horren gainean?

Harresi zati bat topatu dogu.
Beste leku batzuetan be topa-
tu izan dogunez, badakigu zer

“Santa Anako eliza
zaharraren eta
harresiaren
arrastoak aurkitu
doguz plazan”

teknika erabiltzen eben. Harre-
siaren kontra, baina ez traba-
tuta, eliza zaharraren arras-
toak topatu doguz. Ohiko
orientazioa barik iparralde-
tik hegoalderakoa zeukan, gaur
egungo elizaren moduan.
Kanal zaharra, errotarena, eli-
zaren azpitik pasatzen zen.
Harrigarria da errota Andra
Maria elizarena izatea. Errota
hori Lariz Dorrearen azpian
zegoen. Dokumentu idatzietan
eliza eta errota hori XV. men-
dean agertzen dira.

Zer gertatu zen eliza horregaz?

Sute handia gertatu zen
1554an eta eragin handia izan
eban. XVIII. mendearan hasie-
ran eliza barria egitea eraba-
ki eben. Aurreko eliza desman-
telatu egin eben. Bitartean,
eliza zaharra partzialki erabi-
li eben. Kanpaiak egiteko labe
eta moldea be aurkitu doguz.
Atzerago eliza eraiki eta
aurrean plaza itzi eben. Urba-
nistikoki egiten den bigarren
planifikazioa da. Oraingo
kanala be sasoi haretakoa da.

*Aurkikuntzen artean enterramen-
duak topatu dozuez.*

Behe Erdi Aroan eta Aro

Modernoan elizen barrual-
dean lurperatzen zituen gor-
puak. Erdi obalatutako fosatan
egindako enterramenduak
dira. Radiokarbonoa erabiliko
dogu noizkoak diren jakiteko.

*Orain arte halako aurkikuntza-
rik egin izan da Durangon?*

Espazioa oso ona da. Orain
arte etxe bat bota behar ebe-
nean, tamainaren aldetik oru-
be oso txikia aztertu geinke-
en. Kasu honetan espazioa
publikoa eta handia da.

*Hasierako azterketa bat be egin
dozue.*

Georradarragaz azterketa bat
egin genduen. Ikerketa horrek
datuak emon euskuzen arras-
to gehien zer aldetan bilduta
zegoen jakiteko. Horregaitik
ekin deusagu lanari zonalde
horretan.

Merkatua egiten ei zen plazan.

Arku hiribildurako atea zen.
Dokumentuetan ‘Portal del
Mercado’ deitzen deusie lehe-
nago zegoen arkuari. Horrela-
ko plaza handi bat ez, baina
espazio bat bazegoen astero-
ko merkatuak egiteko. Txanpo-
nak eta beste hainbat materi-

“Espazio aldetik
Durangon egin
dogun azterketa
arkeologiko
handiena da”

al topatu dogu bertan. Aurki-
tutakoak aztertu eta gero Bil-
boko Museora eroango doguz.
Zaharbarritu ezik irakurri be
ezin dira egin.

Orain zer egingo dozue?

Aurkikuntza honek herritarren
artean interes handia sortu
dauenez, bisita gidatuak anto-
latuko doguz. Horixe da, hain
zuzen be, gure lanaren azken
puntua. Panelak jarri eta
hitzaldiak emoteko asmoa
dogu. Azterketan egondako
arkeologok gida lana egingo
dogu.

Aurkikuntza mantenduko da?

Inguru hau guztia estali egin-
go da berriro. Inoiz besteren
batek horreek aztanok azter-
tu gura baditu, hortxe egongo
dira. ■Jone Guenetxea

EKONOMIA[>]

> DURANGALDEA

Gitxieneko historiko barrian dago Euriborra

Batez beste, 316 euro inguru merketuko ei dira maileguak hilabeteen

Gitxieneko historiko barria dauka, hipoteka gehienak kalkulatzeko erreferentziazat erabiltzen den Euribor indizeak. Abuztua %1,334an amaitu dau, inoizko baxuen. Seigarren hilabetez jarrian lortu dau minimo historikoa Euriborrek eta, beherakada horrekin, batz bestean, 316 euro merketuko dira maileguak hilabeteen. Horretara, hipotekak dituen hainbatek urtean 3.800 bat euro aurreztuko ditue. Orain urtebete harpidetutako hipotekak merketuko ditu.

Urritik hona behera eta behe- ra joan da euroaren banku arteko merkatuan erakunde finantzari- ek elkarri dirua izteko erabiltzen daben interesa islatzen dauen

Orain urtebete harpidetutako hipotekak merketuko ditu Euriborraren jaitsierak

Seigarren hilabetez jarraian lortu dau minimo historikoa Euriborrek; urritik hona behera eta behera joan da

indizea —1999an jarri eben mar- txan —, eta, azken 12 hiletan, lau puntu jeitsi da. Joan zen urteko urriaren lehenengo egunean, mar- ka historikoa gainditu eban horrek: %5,505.

Datorren urtean, gora

Baina, datorren urtean Euribo- rragorako joera progresiboa izan- go da uelakoan dagoz adituak. Orain hipoteka hartzen dabenek, beraz, era berean sufitutuko ditue igoerak, eta bankuekin egoera negoziatzea gomendatu dabe. Kontsumitzaile elkarteek gogora- tu dabe bankuek Euriborraren jai- tsiera dela- eta blindatzen eta dife- rentziala nabarmen igotzen aha- legindu direla. ■ A.B.

> DURANGO

Bizkaiko lehenengo bulegoa zabaldu dau Kutxak

Bizkaian lehenengo bulegoa zabal- du dau asteon Gipuzkoako Kutxak. Ezkurdi plazako 3an egokitu dau 116 metro koadroko bulegoa, eta kutxa- zain automatikoa izango dau. Eibar eta Elgoibarko bulegoetatik etorri- tako hiru beharginek jardungo dabe bertan. Kutxako arduradunek jakin eragin dabenez, Bizkaiko bigarren bulegoa Ermuan zabaltzea aurrei- kusi dabe. Gaur egun 338 bulego daukaz Kutxak, eta 133 dagoz Gipuz- koan; bat dauka Araban, Gasteizen.

Ezkurdi- n zabaldu- tako bulego- n barriak 116 metro koadro hartzen ditu



Ezkurdi 3an zabaldu dau bulegoa Gipuzkoako Kutxak. G.Alonso

10.000 euro arteko laguntzak bideratuko dira ETE-endako

Famili-enpresen biziraupena laguntzeko 10.000 euro arteko diru-laguntzak emongo deutse Aldundiak Bizkaiko enpresa txi- ki eta ertainei (ETE). Bueltatu beharrik bako laguntzak dira eta eskariak irailaren 30a arte egin leitekez. Helbide fiskal edo sozia- la lurraldean izatea behar da.

Negozioaren etorkizuneko ildo estrategikoak eta, enpresan, famili eta hartu-emon profesio- nalak zehaztuko dituen enpre- sa diagnostikoa sortzea sustatzen dau ekimenak. Holan, aurreran- tzeko belaunaldiekin bideraga- rritasuna eta jarraipena segurtat- zeko. ■ A.B.

4.100 Bizkaiko Bildots hil eta merkaturatu ditue Erralden

Bizkaiko Bildotsaren izenpean 4.100 bildots hil eta komertzia- lizatu ditu Erralde hiltegiak, oraingo kanpaina honetan. Biz- kaiko artzainen bildotsak ziren guztiak, “banan-banan hautatu eta aukeratuak”, jakin eragin dabenez, eta, “aukeraketa eta

Bizkaiko Bildotsaren Kontseiluak zehaztutako helburuak bete ei ditue

kalidade erreferentzi lez erizpi- de organoleptikoak jarraitzen dira”. Gogoratu dabe Bizkaiko Bildotsaren Kontseiluak 4.000 bildots merkaturatzea zeukala helburu, eta artzainari begira aurreko kanpainako ordainketa prezioa igotzea be bai. Helburu biak bete direla nabarmendu dabe Erralde hiltegiako arduradu- nek. ■ A.B.

■ kolaborazioa



Aitor Iturriaga LAB sindikatua

Garai berriak eta errezeta zaharrak

PP Lopezek garai berri bat iragarri zigun Baskongadetako aginte makila hartzean. Agintea nola eskuratu zuen jakinda aurreikusi genezakeen arren, aro berriarekin aro gordina esan nahi zuela ziurtatu dugu; “desberdinen- tzako”, noski. Lopez eta enparauek, erregimen guztie- tan egiten den bezala, hiztegi propioa garatu dute: ‘errepresioari’ ‘bakegingiza’ deituz, ‘apartheid’ ‘demokrazia’ izendatuz....

Inork ez ditu ogerlekoak pezetzen truke ematen, eta, ondorioz, Lopezen bikoteki- deak —Francoren oinordekoak, alegia—, Basagoiti buru dutela, arrantzaka nozitu behar ditugu, gau eta egun, denona den “gure” telebista publi- koan. Eskerrak diren bezala- koak agertzen diren! Azalorek besteko goragalea sortzeko gaitasuna dute!

Rodolfo “Langostino” buru dutela, txakur beltzak adausika dabilta gure herrietako jaietan. Paranoiaren mugan, Tolosan zigarrokin baten bila ei dabilta terrorismo delitua egozteko asmoz... Berandu baino lehen delitu bihurtuko dituzte txapel beltza, taloan bildutako txorizo errea...

Sindikalgintzari eta lan arloari dagokionez ere, aipatu garai berriak ezerezean geratu dira. Sasisozialisten eskutik, lan erregulazio txostenak lehen bezain aise baimentzen dira, eta sortu dituzten enplegu bakarrak beraien militanteak kargu publikoetan txertatzeko sortuak izan dira. Egoera larria da oso, urte bukaera bitartean enplegu suntsiketa nabarmena aurreikusi daiteke, zenbait expresen itxiera medio, eta gobernu hau arduratuago dago neurri gabeko errepresioaren bidez euskal disidentzia zapaldu eta espainoltasuna barreiatzearekin, langileon alde behinola kredo izan omen zuten sozialismoaren oinarriak finkatzearekin baino. PPSOE- ren politika Calvo Soteloren esaldi famatuak laburbiltzen du: “Mejor una España roja que rota”. Tamalez, gurean ez dugu gorrira bihurtzeko arriskurik. Datorrela “udazke- neko aire epela” eta beragaz behar dugun ilusioa eta indarra! Eraikitzen hasteko ordua da.

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateylexpe.biz

A. Urreta

- Oinetako patologiak
- Neurri-egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

Herriko gudarien kalea, 10 - behea
48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 621 54 04

Podología
Podólogo 100. Erregulazioa

KULTURA[>]



Argazkia: Judit Fernandez

ANTZERKIA > EMANALDIA

Heriotzari buruzko bakarrizketa: 'Mortimer'

Udaberrian Leioako Umore Azokan aurkeztu zuen Aritza Rodriguez antzele zaldibartarrak udan zehar ere hainbat bider eman duen bere bakarrizketa: *Mortimer* izeneko antzezlan.

Durango Uda Klean Bizi programazioaren barruan aurkeztu zuen lana uda hasieran, eta askorentzat oporren amaiera den egunotan ere eskaini du bere lana bigarrenez Durangon.

Durango Kurutzia Hotelean izan zen joan zen barikuan *Mortimer* antzezanaren emanaldia. Ekain, uztail eta abuztuko azken hiru barikuetan izan dira haizetarako antzerki eta musika emanaldiak Durango hotelean,

eta udako hiru emanaldietan azkena Aritza Rodriguez zaldibartarren irudiko saioa izan da.

Clown teknika oinarri duen ikuskizuna da *Mortimer*, helburu nagusi aktorearen eta ikus-entzuleen arteko paretaren desegin eta interakzio zuzena lortzea duena. Heriotzari buruzko Rodriguezen gogoeta antzeztua da Kurutzia gan ikusgai izan zena.

Buenos Airesen antzerkia eta zirkua ikasten aritutakoa da Rodriguez, eta Dario Levin aktorearekin bertan ikasitako hainbat teknika eta baliabide ere erabiltzen ditu bakarrizketan zehar. Musika ere zuzenean jotzen du *Mortimer* antzezlanean oholtzan bakarrik agertzen den aktoreak. ■ I.E.

Zuzeneko musika eta clown teknika uztartzen dituen bakarrizketa

12 > Bastera: bizitza, zinema

Montrealeko Festival des Films du Monde jaialdian dago Arkaitz Bastera zinema zuzendari zornotzara 'Life & Film' luzemetraia aurkezten.



13 > Gorrotxategiren tenorean

Duela aste bi Donostiako Musika Hamabostaldian emanaldia izan zuen Andeka Gorrotxategi tenore abadiñarraren lanera gerturatzeko gonbita.

ZINEMA > JAIALDIA

Basterra Montrealen izan da, 'Life & film' lana aurkezten

Quebeck-eko zinema dokumentalen jaialdian eman dute lehenengoz filma



Arkaitz Basterra eta Vojtech Jasny zinema zuzendariak.

Kirmen Uribe, Mikel Urdangarin, Mikel Valverde, Bingen Mendizabal eta Rafa Rueda musikari eta poeten proiektuari buruz *Agian* dokumentala zuzendu zuen zornotzarraren, Arkaitz Basterraren, azken lana da Quebeckeko Montrealeko Festival des Films du Monde jaialdian asteon aurkeztu dutena.

Zinema dokumentalaren jaialdiko 'Munduko dokumentalak' sailean eman dute, hain zuzen, sortzaile zornotzarraren *Life and Film* dokumentala. Txekian jaiotako Vojtech Jasny zinemagile ospetsuaren bizitzari buruzko filmea da; 2006 eta 2007 artean grabatu zuten lana, eta dokumentala emaitza duena. Azken urteetan New Yorken bizi den 83 urteko zinema zuzendari txekiarraren,

Basterrak irakasle eta lagun duenaren, bizitza eta lanaren inguruan osatutako lana da *Life and Film*.

Jasny zinemagile txekiarraren bizitza eta lanari buruzko filma

Besteak beste, *Deseo*, *Noches de Septiembre*, *Opiniones de un payaso*, *La gata Cassandra*, *Todos mis buenos compatriotas* edo *Regreso al paraíso perdido* filmen egilea da Basterraren dokumentalaren zutabe nagusia. Tragedia eta komedia, biak erakusten dituen filma da *Life and Film*. Bizirauteko, maitasuna zutabe duen gizon bati buruzkoa da.

Autore txekiarraren zinema eta Vojtech Jasny zuzendariaren beraren bizitzako pasarteak uztartzen dituen lana da Arkaitz Basterra zornotzarrak Montrealeko lehiaketara aurkeztu duena. Bere irakasle izandako zuzendariaren filmetatik ateratako irudiak ez ezik, zuzendari gaztearen eta esperientziadunaren arteko elkarriketaren irudiak ere biltzen ditu.

Zuzendari eta gidoilari ez ezik, kameralari lana ere egin du Basterrak

Zuzendariaren bizitzako lagunak dira film luze honetan bildu dituztenak; protagonistaren bizitzari eta lanari buruz jarduten dute. Arabako Sonora Estudios ekoiztetxeak sortutako lana da *Life and Film*, Arturo Blasco eta Bingen Mendizabalen soinu banda duena. Zuzendari eta gidoilari lana ez ezik, kameralari lana ere burutu du Arkaitz Basterrak luze-metraia honetarako. ■ I.E.

Tragedia eta komedia, biak erakusten ditu 'Life & Film' lanak



Vojtech Jasny-ren *Deseo* filmeko irudia.

GEURE DURANGALDEA



Jose Luis Lizundia Euskaltzaina

Tapizi ohore

Orain hogeita hamar urte inguru frankismo garaian klandestinitatean ibilitako jeltzale abadiñar adiskide baten omenez prentsan idatzi neban artikulua bat izenburu honekin: 'Paulo Bizkarra gudari ezezagunari'. Bertan aitatzten neban -garai haretan parlamentari nintzen- zelan publikoki ezagunago gehiegitan ahazten garen bigarren lerroan ibilitako militante apalekin. Gauza berbera etorri jatan burura joan den asteburuan Adolfo Tapiz adiskidearen heriotzaren barri jakin nebanean.

Tapiz maristetan ezagutu neban 40ko hamarkada amaieran, eta, geroztik, beti izan gara adiskide. 1964 urtean, gerra osteko euskarazko lehen klaseak Durangon eratu nituen Santanosteko 'Escuela Dominical'-ean, eta matrikulatutako 29. ikaslea izan neban Adolfo Tapiz. Gaur egun euren burua oso abertzaletzat agertzen daben asko ez ziren apuntatu be egin, badaezpada... Adolfo bai. Urteak geroago aitortu eustan hizkuntzak ikasteko burugogorra zela. Erantzun neutsan, agian, ni nintzela irakasle txarra.

Arlo sozialetan beti kezkatua, isilpeko langile mugimenduan be ibili zen eta, gero, agiriago, Comisiones Obreras sindikatuan. Politikan Euskadiko Partidu Komunista-n afiliatuta, gero, Euskadiko Ezkerrera pasatu zen, beste durangar lagun askogaz batera, 80ko hamarkadaren hasieran. Dozena bat urtean militantzia politiko berbera izan genduen gure alderdiaren porrota, arerio askoren merituz eta, batez be, geure errakuntzen demerituz, gauzatu arte. Orduan, Tapiz eta biok eta beste asko etxera... EE-ko ekin-tza askotan laguntzaile zintzo eta apala, ordainez ezer eskatzen ez ebana, bigarren lerroko ekintzailea, alegia.

Berandu jakin neban bere hiletan barri, beraz, bere emazte eta familiakoek hartu egizue nire doluminik sentikorrenak. Bide batez, bere merezimendu ezezagunen omenezko lekukotasuna adieraztea gura izan dot. Agur eta ohore, lagun Tapiz!

GRAFFITIAK > LEHIAKETA

Durangoko San Fausto jaietako VI. Graffiti Lehiaketarako deialdia

Urriaren 17an izango da Durangoko jaietako graffiti lehiaketaren seigarren edizioa. Lanen zirriborroak urriaren 8a arte aurkeztu daitezke

Irailaren 7tik urriaren 8a arteko epea izango dute parte hartu nahi dutenek, Durangoko San Fausto jaietan burutuko den lehiaketako sariketara aurkeztu ahal izateko. Egun tarte horixe izango dute graffiti egile eta marrazki egileek, Durangoko jaietako lehiaketan egin nahi duten graffitiaren zirriborroa Udalean aurkezteko; koloretan eta A3ko neurriko orri baten egin beharko dute. Aurkeztu beharreko dokumentazioaren berri zehatza, Udalaren webgunean aurkitu daitezke.

Banaka zein taldeka hartu dezakete lehiaketan parte 15 eta 35 urte bitarteko graffitigile gazteek. Aurkeztu beharreko marrazkiak baina, lehiaketaren antolatzailerak den Durangoko Udalak zehaztu bezala, "jaia" gaiaren ingurukoak izan beharko dira. Bestalde, parte hartzaileen hautuaren arabera utziko dute euren graffiti zein muralak osatzerako orduan baliatuko duten teknika.

Udalan jasotzen dituzten zirriborro guztien artean epaimahaiak hautatzen dituen hamarrak izango dira ondoren, jaietan, urriaren 17an, Durangoko Ezkurdi plazan prestatuko dituzten paneletan euren marrazkiak egin ahalko dituzten artistak. 600 euroko lehenengoa, 400eko bigarrena, eta 200eko hirugarren saria izango dira jokoan. ■ I.E.

'Jaia' gaiaren inguruko graffitiak osatuko dituzte graffiti-egileek



lazo graffiti lehiaketan irabazle hautatu zuten lana.

ELKARRIZKETA > MUSIKA

Donostiako Musika Hamabostaldian izan dozu orain aste bi emanaldia. Zelan joan zen?

Oso gustura aritu ginen, Kur-saal-eko Kubo aretoan egin genduen emanaldia. Belle Epoque-ari, joan zen mende amaierari buruzko erakusketa bat dago orain bertan, eta, besteak beste, Zuloagaren koadroen artean abestea oso polita izan zen.

Josu Okiñena pianistak lagun-duta zabilz aspaldion.

Orain pare bat urteko Hamabostaldi batean ezagutu genduen elkar, eta audizino batean elkarregaz aritu ginen lehenengoz. Orduetik kolaboratzen dogu.

Zer erreperitorio eskaintzen dozue emanaldi horreetan?

Erakusketa horregaz bat egiten eban erreperitorioa, joan zen mende hasierakoa, aukeratu genduen: Usandizagaren, Guridiren eta Aita Donostiaren kanta batzuk, eta erreperitorio frantsesa eskaini genduen (Gabriel Fauré, Henri Duparc, Reinaldo Hahn eta Erik Satie-ren abestiak eskaini genduzen).

“Audizino batean aritu nintzen lehenengoz Josu Okiñenagaz”

Zelan aukeratzen dozue emanaldietako erreperitorioa? Espezializatuta zagoze garai zehatz edo abesti mota batean?

Ez. Beste ezeren gainetik ahalgintzen garena da musika egiten, espezializatu behar horregaz ez Josu ez ni ez gatoz bat. Barrokoa, esaterako, ez dogu lantzeko joerarik, eta gehienbat Klasikotik aurrerako kantak interpretatzen doguz: nire ahotsagaz bat datorrenez, Erromantikoa den guztia lantzen dogu gehien.

Zelakoa da zure ahotsa?

Nire ahotsa opera munduan ezagutzen den horreetara gerturaten da gehiago, eta operan erreperitorio erromantikoa lantzeko aproposa da. Tenorea naz, nire eritiz tenor-liriko-spinto tartean sailkatu daitekena: tenoreen barruan behekoen, gra-been artean dago nire ahotsa.

Zelan lantzen da ahotsa?

19 urte neukazela hasi nintzen ahotsa lantzen. Abesten hasi nintzenean, Benito Lertxundi, Silvio Rodríguez eta Mikel Laboaren kantak abesten nituen nire etxean. Nire oroimena da ez neukala ahots berezia. Inork ez daki zer daukan ezarrarian, landu arte. Batzuek erratasun gehiago daukie, inork erakutsi barik ikasten dabe. Orkestra bategaz jotzen denean be, perfektinoa, ahotsa beste instrumentu bat gehiago izatea litzateke. Ahotsaren potentzialitate guztia ateratzea da lanaren helburua; esaterako, gure emanal-

“ Ahotsaren potentzialitate guztia ateratzea da abeslarion helburua ”

Tabernan lagun artean kantatzeko aspaldiko ohitura galdu izana galera handia dela uste dau **Andeka Gorrotxategi** tenore abadiñarrak. Bob Marley entzungai dagoen tabernan dino: “Kantatzeko geunkan aberastasun kultural hori galdu egin dogu, zoritxarrez”.



Judit Fernandez

dietan ez dago ez mikrofonorik ez bestelako baliabiderik, ahotsa bera baino.

Egunero landu beharrekoa da ezarririk instrumentua?

Batez be hasieran, nik uste dot baietz. Hasieran gogoratzen dot orduak eta orduak emoten nituela etxean sartuta, garrasika (barrez). Hasierako urteetan ez nintzen nota batetik aurrera pasatzen, eta ordu asko emoten nituen egunero, agudoetara heltea lortu guran. Gorputza ezagutzea da azkenean behar dena; muskulua zein pertzepzioak lantzea da kontua.

“Ahotsa eta pianoa, mikrofono barik entzunarazten doguz gure emanaldietan”

Non landu izan dozu ahotsa?

Bilboko Kontserbatorioan hasi nintzen, gero Bilboko irakasle bategaz aritu nintzen, eta Madril, Erroma, Paris eta Estatu Batuetako hainbat irakasle-gaz ikasi izan dot. Irakasle bakoitzagandik zeozer hartu, baina aldi berean autodidakta izatea be garrantzitsua da. Intuizinoa jarraitzea oso inportantea da.

Atzerrian ibili zara ikasten.

Marsellako CNIPAL-en (artista lirikoen lan-sarbiderako zentruan) egon nintzen 2007an. Erreperitorioa landu eta ikasten genduen bertan, eta profesional mundura zelan sarrera egin ikasten genduen: amateur izatetik profesional izatera igarotzeko saltoa zelan emon irakasten euskuen. Mundu guztiko 15 bat abeslari bildu ginen bertan, irakasle batek hautatutakoak.

Operan jarduten dozu?

Bai, Bilboko Operaren Lagunen Elkartegaz egin izan ditut paper txiki batzuk; Frantzia be Tosca-ren kontzertu bertsioa egin izan dot. Urrian, Usandizagaren *Mendi-mendian* opera abestera joango naz Argentinara. Bestetik, niretzat orain arte egin izan ditudanetatik garrantzitsuen dena, datorren urteko ekainean Arriagan *Mirentxu* opera egitea da.

Operan, ahotsa ez ezik antzezpena be landu behar da...

Bai, baina egia esan nik oso gitxi landu izan dot alor hori. Zarzuela egin izan dot, eta badago parte bat antzerkia dena: horixe da niri gehien kostatzen jatana (kritiketan be sarri aipatu izan dabe alor hori hobetu beharra dodala). Operan, zuzendariak emoten deuskuzen lau pautetatik

“Perfekzinoa, ahotsa beste instrumentu bat gehiago izatea litzateke”

“Operaren inguruko oso publizitate txarra egin izan da, aurreiritziz betea”

“Ekainean Arriagan egingo dogun ‘Mirentxu’ opera oso berezia da niretzat”

aurrera, oso pertsonala da antzezpena. Oso gatxa egiten jat hori niri, aktorea barik abeslaria nazelako.

Hasi zara prestatzen?

Prozesu oso luzea izaten da opera bat oholtzaratzea, paper horretan arituko nintzela ia urte bi lehenago esan eusten. Oso berezia izango da emanaldi horretan Maria Bayogaz kantatuko dodalako, eta Emilio Sagi zuzendari eszenikoagaz eta Euskadiko Orkestragaz arituko nazelako. Lau emanaldi eskainiko doguz Arriagan.

Operagaz jente gaztea harripatzea gatxa da?

Operaren inguruko publizitate oso txarra egin izan da: operan, butakan lo geratzen denaren irudia zabaldu da. Beste aurreiritzi oso hedatu bat operara aberatsak joaten direla da, baina ezagutzen dot langilea eta oso operazalea den jentea be.

Badago aukera nahikoa zurea lako ibilbidea egin gura daben gazteentzat gure artean?

Behar leukena baino gitxiago. Nik, egia esanda, zorte handia izan dot, eta ez dot lanik falta, baina Frantzia edo Alemanian dagoen ohitura eta kulturarik ez daukagu: musika lirikotik askoz gertuago dagoz han. ■I.E.

MUSIKA > EMANALDIA



Misery Signals taldea da buru asteleheneko kartelean.

Doinu gogorak Plateruenean iraileko lehenengo astelehenean

Estatu Batuetatik eta Ingalaterratik datozen hiru taldek eskainiko dute irailaren 7an Durangoko Plateruenean asteleheneko zuzeneko emanaldia

Ikasturte berria, iraila zein astea abiatzeko aproposa izan daitekeen proposamena da Durangoko Plateruenean irailaren 7an, 20:00etatik aurrera, eskainiko dugutena. Astea energiaz betetako doinu laguntzagaz hasteko apropos. AEB eta Ingalaterratik datozen hiru talderen zuzeneko da proposatzen dugutena: Misery Signals, Your Demise, eta The Number Twelve Looks Like You.

Hardcore, metal eta punk ukitua duten doinuak jotzen dituzte

Misery Signals, bost lagunek osatzen duten talde estatubatuarra da kontzertuon kartelburua; ahots eta gitarra elektrikoaren doinu astun eta gogorak dira euren kanten oinarri nagusia. Hiru taldeak Europako hainbat herrialde-



Your Demise boskote ingelesak ere jardungo du.

tako areto eta jaialdietara ekarri dituen birakentzule europarrarentzat duen alderdirik erakargarriena da indar hori; hardcore, metal eta punk doinuaren zaleak erakartzen dituena.

Indar handia

Ingelesez "monstrous" berbagaz, izugarritzat, deskribatzen dute Misery Signalseko taldekideek Karl Schubach abeslariaren ahotsa eta kantakera. Indartsua da eta ahotsa. Euren metal, punk eta hardcore doinuak zabaltzen dihardute European zeharreko bira honetan, eta Frantziako Tolosako eta Oportoko (Portugal) emanaldien artean ageri da kontzertu zerrenda luzean Durangoko Platerueneko asteleheneko zuzeneko.

Bost urtez kontzertuak eskaintzen jardun duen Your Demise talde ingelesa, bestalde, *Ignorance Never Dies* disko berria aurkeztu eta etorriko da Platerueneko zuzeneko. Estatu Batuetako TNTLLY

European zehar egingo duten biraren geltoki bat da Durango

(The Number Twelve Looks Like You) taldea ere bira honetan dugu, European lehenengoz, martxoan kaleratutako *Worse than alone* diskoa aurkeztu eta etorri.

Doinu eta kanta indartsu eta gogorak dakartzaten hiru taldeon musikak zuzeneko emanaldian duen indarra frogatzeko, entzungai ditugu irailaren 7an, astelehenean, Plateruenean, gure artean lehenengoz. ■ I.E.

'Ignorance never dies' diskoa aurkeztuko du Your Demise taldeak

Frantziako Tolosan eta Oporton joko dute biran, besteak beste

'Worse than alone' disko berriko kantak joko ditu TNTLLY-k



TNTLLY (The Number Twelve Looks Like You) talde estatubatuarra.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

IRAILAK 4 22:00etan
DJ JOR-G + DJ STAN +
ETXEKO DJAK
V. GAU ELEKTRONIKOA. Sarrera: 5 euro

IRAILAK 7 20:00etan
MISERY SIGNALS +
YOUR DEMISE + TNTLLY
KONTZERTUA. Sarrera: 16-19 euro.

IRAILAK 12 23:00etan
ESNE BELTZA + DJ Z
DUR&GO ROCK CLIMBING MASTER
KONTZERTUA. Sarrera: 10 euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

XX. MUSIKA HAMABOSTALDIA
Euskadiko Orkestra Sinfonikoa

Irailak 11
20:30ean

San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

HITZ

Liburudenda

Tf.: 94 601 07 76 Artekale, 14 Durango

eskolara bueltan



2009

anboto



EROSKI

Erosten jakin • ABADIÑO

Itzuli eskolara
erritmoz!



439€



4,99€



269€

CIEN PIES



CIEN PIES

Udazkenena

Udako denboraldia amaituta, eskolara bueltatzeko sasoia heldu jake haur eta gazteei. Azken hilabeteotan, igerilekuan eta hondartzetan, mendian eta olgetalekuetan jolasean ibili ondoren, egunerokotasunera itzultzeko garaia da.

Eskolara joan eta eskolaz kanpo egiten dituen ekintza guztiei aurre egiteko oso garrantzitsua da umeek arropa eta oinetako erosoak erotea.

Urtero legez, gurasoek gastu handia izango dabe irailean, arropak eta eskola materiala erosteko. Umeak behar dauena ondo zehaztuta dendara joanez gero, errazagoa izango da behar dauen erropagaz bakarrik itzultzea, beharrezko ez den gasturik ez egiteko.

Dotorezia

Erosotasuna eta dotorezia uztartzeko udabari eta neguko denboraldian moda-modan dagoen joeren barri emongo deusuegu. Bat-

batean udako beroak udazkeneko hotzari lekua egingo deus, eta dendara arropa eta oinetakoak erostera goazenean zer aukituko dogun aurretik jakitea komeni da.

Nesken moda

Kolorez betetako soineko eta aurkituko doguz aurtengo udazkenean eta neguan. Arropa beragaz ez

aspertzeko, hainbat kolore eta marrazkidun galtzerdiekin konbinatu geinke. Diseinu askotako eskularru eta txapelek hotzetik babestuko ditue.

Mutilen moda

Mutikoe be aukera zabala daukie eroso sentitzen diren arropa

aukeratzeko. Marradun kamisetak moda-modan egongo dira. Bi aldeetatik erabilgarriak diren manga bako kazadorarik be ezin da armailuan falta. Txandalek be gazteen jantzien artean egon behar dabe.

Goizetik gauera egiten dituen ekintza guztietarako balio dauen jantzia da.



caribu



caribu



caribu

Udazkenagaz batera moda joera barriak jatorkez

REPLAY & SONS Andanines!

CIEN PIES

Tallak: 160k 41era

CALZADO INFANTIL

Ibalzabal kalea, 6 • 48200 Durango (Bizkai) • Tel.: 94 621 84 88



Juan A. Unzueta 4zkoa
Matiena-Abadiño
Tel.: 946204324

soinean



Txapela buruan, ibili munduan

Udazkeneko eta neguko osagarri garrantzitsuenak txapela eta bufanda dira. Neguko egun hotzetan gaztetxoek hotzik pasatu ez daien, denboraldi honetarako proposamen interesgarriak topatuko doguz. Lorez betetakoak zein marradunak gaztetxoek gustukoak izango dira.



Oinez hastean behar ditu umeak lehenengo zapatak

Oinetakoek erosotasuna eta estetika uztartu behar ditue

Oinetakoak

Euria eta elurra denean, ume eta gazteek ganorazko oinetakoak behar ditue. Zinta zein kremaileraz zarratzen diren material askotako zapata originalak topatuko doguz, arazo barik kalera irtetzeko.

Lehenengo pausuak emoten dabilen ume txikiagaz hasi eta ari-ri-ri-ri-ri gelditu barik ibiltzen den gazteagaz amaitu, zapata erosoak aukeratzea garrantzitsua da umearen garapenerako.

Neurri egokiko zapatak erostea be beharrezkoa da. Urtebetetik lau urte bete arte, orokorrean, umeen hanka taila bi hasten da urteko. Bostetik hamarrera, barriz, taila

bat urtean.

Beraz, oinetakoek ezaugarri nagusia erosotasuna izan behar da, estetikaren gainera. Merkatuan daukaguzen marka gehienek bi arloak lantzen ditue, umearen oina babesteagaz batera modan egoteko.

Baleiteke neska gazteek takoidun zapatak erabili gura izatea, baina ez da gomendagarriena oinaren garapenerako.



Txikitxoentzat

Oinez lehenengo pausuak emoterakoan jantzen ditu ume batek bere lehenengo zapatak. Halan be, etxean oinutsik oinez ibiltzen iztea gomendagarria da, oinez errazago

ikasi daian.

Ibiltzen hasi arte, galtzak edo estalki erosoak erabiltzea komeni da. Lehenengo zapatak aukeratzekoan kalitate onekoak izan daitezzen zaindu behar dira.



tienda BEGO



tienda BEGO



astartoa 15, durango • tel.: 94 623 26 32



tienda BEGO

umeentzako arropa
0 a 14 urte arte

Irabaketa: 20. bitxia • 43220 Mairua • tel: 941 061 09 82

INPRESIO DIGITALA

DOKUMENTUEN INPRESIOA FITXATEGI
INFORMATIKOETATIK, ZURI-BELTZEAN
ZEIN KOLORETAN (LIBURUXKAK,
TXARTELAK, GUTUN-AZALAK,
TXOSTENAK, ...)

INPRENTA DIGITALA

KOPIAK, PLANOEN INPRESIO ETA
PLOTEATZEA, ZURI-BELTZEAN ZEIN
KOLORETAN

PLASTIFIKAZIOAK

ENKUADERNAZIOAK (ESPIRALA,
KANUTILOA, JOSITA, TESIAK)



KALITATE

PROFESIONALA

MERKEAGOAK

KONPROMISO GABEKO

AURREKONTUAK

INPRESIO

LANAK!!

**Bidebarrieta, 1
48215 IURRETA
Tel. 94 681 10 70
Faxa: 94 466 82 60
mac@iurretakopi.com**

IK *Iurreta
kopistegia*

www.iurretakopi.com

DISEINU GRAFIKOA

KOMERTZIALA ETA PUBLIZITARIOA
IRUDI KORPORATIBOA
ORRI-ZENBAKETA LANAK
MAKETAZIOA ETA INPRIMATZEA
(ALDIZKARIAK, LIBURUAK,
KATALOGOAK)



OFFSET

TIRADA HANDIAK
TALOITEGIAK, FAKTURA SORTAK,
EGUTEGIAK ETA BESTE INPRIMAKI
BATZUK.



BESTE ZERBITZUAK

FAX-A
KAUTXUZKO ZIGILUAK
FORMATU HANDIKO KARTELAK
BORDATUAK, TXAPELAK...
PAPERTEGI MATERIALA
EZKONTZA GONBIDAPENAK,
OROIGARRIAK, ...
OPARIAK: EZKONTZETARAKO ZEIN
KOMERTZIALAK
TRANSFER ETA SERIGRAFIA (ARROPETAN
ZEIN OPARI KOMERTZIALETAN,
AGENDETAN, BOLIGRAFOETAN, ...)

eskola materiala



Eskolarako bueltak hainbat buruhauste sortzen ditu familia askoren ekonomian. Seme-alabei liburu barriak erosteaz gainera, motxilak, margoak, estutxeak, koadernoak eta beste hainbat osagarri erosi behar izaten jakez.

Sasoi batean, liburuak neba-arreba nagusiek erabilita gazteagoei emoten eutsezen. Gaur egun, ikasturte hasiera bakotxean ikasle bakotzak bere materiala gaurkotu behar dau.

Krisi ekonomikoan murgilduta gagozen honetan, inoiz baino garrantzitsuagoa da ikasturte hasierako erosketak ahalik eta gehien planifikatzea. EKA kontsumitzaile bulegoaren arabera, familia bakotzak 500 eta 1.200 euro artean gastatuko dau seme-alaben eskola materialean. EKAkoek gomendatzen dabenez, eskola materiala erostera joan aurretik, zerrenda batean behar doguna jarri eta hori baino ez erostea da aurrezteko modu egokiena.

Liburuen erosketan gatxa da gastua murriztea. Modu bakarra eskaintzak alderatzea izan leiteke, merkeena non dagoen jakiteko. Gainerako materialean, barriz, publizitateak eragin handia dauka gaztetxoengan. Gustukoena

sarritan garestiena be izaten denez, argi ibili beharra dago.

Motxila

Gaztetxoek joan-etorri ugari egiten ditue egunean zehar, motxila bete-beteta. Behar dabena bakarrik daroela begiratu beharko dabe gurasoek, alperrik pisurik eroan ez daien.

Adituek dinoenez, motxilak ume edo gaztearen pisuaren %10 baino gehiago ezin dau izan. Pisua bi sorbaldetan orekatu behar da. Beraz, motxila alde bakarrean ez da eutsi behar. Tiranteak be ondo lotuta eroan behar dira.

Tamainua aukeratzekoan umearen altuera kontuan hartu beharra dago, bizkarrera ondo egokitu daiten.

Motxila astunegia bada, errubedundun motxila hartu beharko dau. Tira egitean horrek be pisu handia badauka, bakotxean esku batekin eroatea da onena.

Ikasturte hasieran familia bakotzak 500-1.200 euro gastatuko ditu

Motxilaren tamaina eta pisua kontuan hartu behar dira

Motxila pisutsua bada, gurpilduna erosi leiteke

BETSAÏDE
ENGLISH SCHOOL

- 1. eta 2. Hezkuntzako errefortzu klaseak
- Ingeles maila guztiak
- Atzerrira bidaiak
- Intentsiboak

Trafalbarren, 13 - 3 behea - 48220 Matiena - Abodiño - Mug.: 637 41 64 38

ARTEKA

Artekale, 20 Durango

URIEN
liburudenda

opariak, jolasak, eskola eta bulego gaiak, bus bonoak, gozokiak, prentsa, aldizkariak, fotokopiak, fax zerbitzua, telefono txartelak

BIXENTE KAPANAGA, 10 TEL.: 94 466 93 60 FAXA: 94 466 93 61 48200 IURRETA

Otxoa Liburudenda

sar zaites literatur munduan

Andramari Kalea, 20 Durango - Telefonoz: 94 681 06 98

11.94 601 07 76 ARTEKALE, 14 DURANGO

HITZ
Liburudenda

Krisiaren aurrian

Eskolara bueltatzeko sasoia heldu denez, txikitxoek egokitzapen fasea pasatu beharko dabe. Haurtzaindegietako langileak prest dagoz umeak apurka-apurka ezagutu eta ikastetxeko ohituretara moldatzen irakasteko.



Nagusiagoek, barriz, badakie eskolara joatea zer den. Liburuak jaso eta buru-belarri ikasteari ekin beharko deutesie. Hurrengo oportetara heldu arte, liburu artean hilabete batzuk emon beharko ditue.

Ordenagailuak geroago eta gehiago erabiltzen diren arren, liburuak dira material didaktiko erabiliena. Familiek ikasleko, batez beste, 112 euro gastatzen ditue liburutan. Unibertsitatekanpora, 50 milioi ale saldu zitueen igaz. Editoreen merkaturako fakturazioaren laurdena eskola liburuetatik dator.

Laguntzak

Oinarrizko irakazkuntza "derrigorrezkoa" eta "doakoa" izan behar dela dino legeak. Liburuak eskuratzeko erkidego autonomoek eta Hezkuntza Ministerioak diru-laguntzak emoten ditue. Estatu espainiarrean, erkidego bakoitzak liburuen erosketan laguntzeko bere modua dauka. Gehienetan familaren errenta mailaren arabera emoten ditue.

**Familiek 112e
gastatuko ditue
liburutan,
ikasle
bakotxeko**

**Erkidegoek
liburuen
erosketarako
diru-laguntzak
emoten ditue**

Euskal Herrian, beste hainbat lekutan legez, liburuen prestamoa egiten da. Ikatstetxeak ikasleari liburua emoten deuteso eta ikasturtea amaitzean ikasleak itzuli egiten dau, hurrengo urtean beste ikasle batek erabili daian. Beste leku batzuetan, barriz, liburu txekea emoten da.

Ordenagailuekin ikasten

Hainbat ikastetxetan liburu gitxiago erabili eta ordenagailuagaz lan egiteko saiakera egiten dabilz. Etorkizunean joera hori handituko dela dirudien arren, ordenagailuak liburua ordezkatzeko dauela dinon teoriak badaukaz kontrakokoak eta aldekoak.



 **Kurutziaga Akademia**
Aerografia • Biologiak • Matematika • Arteak • Musikak • Informatika

ARTE EDERRAK
Ume eta nagusientzako pintura eta marrazkigintza kurtsoak

MATRIKULA ZABALIK
• Astelehenerik ostiralera
• Goiz eta arratsaldeko ordutegia

Tel.: 94 603 05 27 *informa zaituz
konpromezu gabe*

info@academiakurutziaga.com • www.academiakurutziaga.com

 **berrike**
Liburudenda

benar duzun eskola-materiala!

- Testu liburuak
- Hezkuntza eskolarako liburuak

Kalebarria, z/g • 48200 Durango
Tel.: 94 620 18 93 • Fax: 94 681 64 03

 **KAMIKOPIAK**
KOPISTEGIA

Fotokopiak • Enkuadernazioak • Plotterak
Planok • Papergintza • Inprimaketa digitala

Berriotxoa kalea 9
Tel.-Faxa 94 623 14 31
48230 ELORRIO
kamikopiak@kamikopiak.com



Musika Moderno Gunea eta Umeentzako Musika

Alluitz, 3 behea • Durango • Tel.: 94 603 27 50 • www.rockizarra.com • info@rockizarra.com

Gitarra • Pianoa • Bateria • Baxua • Rock eta Jazz konboak • Lengoia
Musikala • Harmonia • Grabaketa eta Informatika Musikala

matrikula zabalik

ORAIN:

Saxo • Bibolina • Trikitixa • Akordeoia
Panderoa • Zeharkako txirula
AUDIO TEKNIKARI DIPLOMA
PROFESIONALA

Irakasle onenak eta instalazio moderno eta erosoak Durango erdialdean

JOLASTU DO-RE-Mian!

ROCK IZAR ESKOLAK YAMAHA METODOA ESKLUSIBAN AURKEZTEN DU DURANGON

4-12 URTE BITARTEKO UMEENTZAT

LAU URTETIK AURRERAKO UMEEK EUREN SORMEN ETA AHALMEN
MUSIKALA LANTZEN DUTE TALDE MURRIZTUETAN, NATURALITASUNEZ
ETA ERA DIBERTIGARRIAN.

info@rockizarra.com



Ikastetxe jatordua

Ikasturte honetan milaka ume eta gaztek ikastetxeetako jantokiak beteko ditue. Ikastetxe gehienek seme-alaben elikadurari buruzko informazioa helarazten deutsee gurasoei, hurrek jantokian zer jaten daben jakin daien.

Milaka ikaslek astean zehar eskolako jantokian jaten dabe. Ikastetxe gehienak ume eta gazteen elikadura zaintzen saiatzen dira, dieta orekatua eta osasungarria izan daien. Gurasoei hileru umeen menuaren barri emoten deutsee, etxean bazkaldu ez arren, umeen elikaduraren jarraipena egin daien.



Consumer aldizkariak kaleratutako azterketa baten arabera, eskola gehienek murriztu egin dabe opil eta gozo eskaintza. Estatu espainiar osoko 211

ikastetxetan egindako ikerketaren arabera, %17k ez dau barazkirik jartzen astean behin be, eta hamarretik batean ikasleek ez daukie arrainik aste osoan.

Jaten erakutsi

Seme-alabei ondo jaten erakustea sarritan ez da erraza izaten. Jantokian arau batzuk ikasten ditue, baina etxean be elikadurari behar den garrantzia emon behar jako. Elikadura ohiturak etxean ikasten dira ondoen. Gurasoek ohitura osasungarrien adibide izan behar dabe.

Adinaren arabera, elikadurak bere ezau-garriak daukaz. Hiru urtetik aurrera umeek denetarik probatu daien saiatu behar da. 7-12 urte artean hasten dira finkatzen zer janari gustatzen jaken, eta hori prestatzeko eskatzen deutsee gurasoei. 13-16 urte artean elikadura zaindu beharra dago, lar jatea be ez da-eta egokia izaten.



Ikastetxe gehienek menu orekatua eskaintzen dabe

Menu bereziak

Sasoi batean ez zen holan, baina gaur egun elikadura berezia behar daben umeek aukera zabala daukie bai ikastetxeetan bai etxean jateko.



Janari jakin batzuk jan ezin ditueenek ez dabe etxera bazkaltzera joan beharrik. Ikastetxe gehienetan menu

bereziak prestatzen deutseez elikagairen bategaz arazoak ditueen umeei.

Zeliakoek edo laktosarik jan ezin dabenek eurentzako bereziki prestatutako menua jantokian eskuragarri izaten dabe. Gluten zein esnekirik barik prestatzen deutsee bazkaria. Familia asko- rendako, bardinatsuna jantokira heltzea lorpen handia da.

Baten batek elikagai jakin bati alergia izanez gero, ume horri emoten jakon menua bereziki zaintzen dabe.

Jantokietako sukaldariek ume guztien-dako menu orekatua prestatzeaz gainera, elikadura berezia daukien umeen beharrei be erantzun behar deutsee.




Hurtzaintza markarik onenak preziorik onenean:

□ Erosketa egitean, beste edozein dendetan produktu* berdina merkeago aurkitzen baduzu, hitz ematen dizugu preziorik merkeena kobratuko dizugula □

egiguzu bisita:

Bilbo: Alameda Urquijo, 76. Tel.: 94 442 10 72
Barakaldo: Euskadi, 66 □ Megapark alboan □. Tel.: 94 485 15 84
Basauri: Urtunduaga industrialdea, 1. pabil. Tel.: 94 440 08 51
Lejona: Iparragirre, 80-82. Avanzada errepidea. Tel.: 94 464 94 38
Durango: Montebideo etor., 32 Tel.: 94 620 35 37

www.bambinobebe.com



* hurtzaintzako produktueterako, produktu berdina fabrikatearen kolorea, modelo eta erreferentzia berdinekoa.





izurtzako

**j
a
i
a
k**

og



 **anboto**



**IZURTZAKO
UDALA**

**Izurtzako Udalak
JAI ZORIONTSUAK
opa deutsuez**



izurtzak o jai egitaraua

IRAILAK 4, OSTIRALA

Frontenisa.

20:00 Txupinazoa.

23:00 Kontzertua:
DESPERDICIO
THE STRIKES
SALTIXTAS LAW
TRASTORNO

IRAILAK 5, LARUNBATA

10:30 Pilota partiduak.

12:00 Basurde Txapelketa:
aurkezteko azken ordua
14:30ean.

14:30 Enkartelada.

17:00 Herri-kirolak:
Soka-tira
Txorokil batzea
Txingak
Zaku lasterketa
Fardo jaurtiketa
Igel txapelketa
19:00 Bingo popularra.

IRAILAK 6, IGANDEA

10:00 Kalejira.

11:00 Meza Santa Agedako
baselizan.

12:00 Mendigain dantza taldea.

12:30 Bertsolariak:
HARKAITZ ESTIBALLES,
IÑAKI VIÑASPRE,
OIHANE PEREA,
ESTITXU EIZAGIRRE.
Gai-jartzailea: MAITE
BERRIOZABAL
14:30 Bertso bazkaria.

18:00 TXAN magoa.

19:00 LOTXO eta bere taldea.

IRAILAK 8, ASTEARTEA

10:00 Kalejira.

11:00 Meza Erdoitzako baselizan.

12:00 Dantzariak.

12:30 Pilota partiduak: finalak.

15:30 Umeentzako jolasak.

IRAILAK 11, OSTIRALA

18:00 Frontenis Txapelketa.

19:00 Trikipoteoa eta trikitalari
alaiak (bitartean, flan-jan
txapelketa).

23:00 DJ-ak: DJ GATO
DJ ROJO
DJ IKAR

IRAILAK 12, LARUNBATA

16:00 XVIII. Mendi Bike Ibilaldia.

18:00 Dantzari Eguna:
Dantzarien bilera eliza
aurrean. Jarraian kalejira
eta partaideen argazkia
Udaletxearen aurrean.

19:30 'Dantzari dantza',
Udaletxe aurrean.

Jarraian hainbat taldetako
dantzariak osatutako
sokarekin 'Soka dantza'.

21:30 Lagun arteko afaria
pilotalekuan.

23:00 Erromeria:
IMUNTZO ETA BELOKI

IRAILAK 13, IGANDEA

10:00 Kalejira.

11:00 Meza, Santo Tomasen.

12:00 Mendigain dantza taldea.

12:30 Bertsolariak:
MIREN AMURIZA ETA
MAIALEN ARZALLUS

12:30 GORRITI eta bere
abereak.

14:30 Jubilatuen bazkaria
herriko plazan, AIORA
ETA ANE trikitalariekin.

17:30 Txotxongiloa:
TONY LA SAL

18:30 Mus txapelketa.

Juan Ramon Azkonizaga

Ortuzar auzoa, 1 - IZURTZA Biltegia: 94 681 06 52

Banatzaillea:



JATETXEA AZKONIZAGA

Euskal Sukaldaritza

Eguneko menua

Ortuzar, 1 IZURTZA Tel: 946 812 025



MEGAVIDEO

BIDEO PRODUKZIOAK

GRABATZEKO EKIPAMENDU OROKORRA:
KAMERAK, UNITATE MUGIKORRA,
POST-PRODUKZIO ETA GRAFISMO GELAK,
PLATOA

KULTUR- ETA HERRI- EKINTZAK
ENPRESAKO BIDEO PRODUKZIOAK

<http://www.megavideo.es> • e-mail: megavideo@megavideo.es
Elizalde, 25 - 1. Pab. • Tel. 94 620 20 55 • 48213 IZURTZA (Bizkaia)

Ezpatadantzaren erritmoan

Merinaldeko Ezpatadantzari Eguna ospatuko dabe 12an; musika eta txapelketarik be ez da faltako

Irailaren 4tik 13ra bitartean gozatuko ditue izurtzarrek aurtengo jaiak. Batez be, asteburuetan zentratuko dira ekitaldiak, baina martitzenean be, hilaren 8an, jarraipena izango dau festak. Eskualdeko 37. Ezpatadantzari Egunaren ospakizuna da nobedade garrantzitsuenetarikoa.

Eguna ondo amaitzeko, lagun artean afaldu eta erromerian segituko dabe ezpatadantzariak, Imuntzo eta Belokigaz

Hainbat txapelketa antolatu ditue: igela, frontenisa, bingo popularra, pilota eta musa, hain zuzen be

Irailaren 12a aukeratu dabe dantzarekin lotutako egun berezi horretarako. Urteroko zita da honakoa Durangaldeko ezpatadantzarietzako, eta aurren Izurtzan egitea erabaki dau antolakuntzaz arduratzen den Gerediaga Elkarteak. Arratsaldean emongo jako hasiera egitarauari, kalejiragaz. Eliza aurrean batuko dira parte-hartzaileak, 17:00etan, eta

udaletxerainoko bidea egingo dabe. Horren ondoren, familia-argazkia aterako dabe, guztiek batera.

Arratsaldeko 19:00etarako egin dabe deialdi nagusia: *Dantzari dantza*. Izurtza, Iurreta, Durango, Mañaria, Garai, Abadiño, Berriz eta Otxandioko 20 taldek jardungo dabe *Dantzari dantza* osotzen daben 9 dantzetan: *Agintariena, Zortzinangoa, Ezpata txikiak, Banangoa, Binangoa, Launangoa, Ezpata joko nagusia, Makil jokia* eta *Txotxongiloa*. Gero, talde bakoitzeko bina dantzariagaz osotutako soka egingo da plazan.

Eguna ondo amaitzeko, lagun artean afaldu eta erromerian segituko dabe, Imuntzo eta Belokigaz.

Lehiaketa ugari

Izurtzako jaietan ez da aspertzeko aukerarik izango. Horren adibide da hainbat txapelketa antolatu direla parte hartzeko zein ikusteko: frontenisa, igela, bingo popularra, pilota eta musa, hain zuzen be.

Musikari jagokonez, rockak hartuko dau protagonismoa Izurtzan. Eskualdeko hainbat taldek joko dau irailaren 4an, 23:00etatik aurrera. Dena dela, erromeriak be bere lekua izango dau, zelan ez.

Bestalde, ezin ahaztu egun handia hilaren 8a dela herritarrentzat. Kalejira, meza, dantzariak, pilota partiduak eta umeentzako jolasak prestatu ditue egun horretarako.



Launa plus
Onda

Launa
Arabic Finish

www.bodegaslauna.com
info@bodegaslauna.com
Tel.: 94 682 41 08

Bertsolaritza, zita esanguratsua jaietan

Bertsok indar berezia hartuko dau aurtengo jaietan. Bi egunetan hurreratuko dira bertsolariak Izurtzara; saio bi egingo ditue, irailaren 6an eta 13an.

Eguerdiko 12:30ean hasiko da hilaren 6ko ekitaldia. Arkaitz Estiballes, Oihane Perea, Iñaki Viñaspre eta Estitxu Eizagirre ariko dira kantuan, bazkalaurreko giroa animatu guran. Estiballes bilbotarra da, eta Bizkaiko Txapelketan aurrean ibili izan da azken aldietan. Perea eta Viñaspre Arabatik etorriko dira; Urkiolan behera, beraz. Eizagirre Hernani aldetik bertaratu-ko da; seguru piperra eta gatza be beragaz dakartzela. Lau bertsolari horreek

Maite Berriozabal gai-jartzailearen esanetara kantatuko dabe.

Hurrengo domekan, ostera, gazte izan arren hasi barriak ez diren bertsolari bi azalduko dira Izurtzan: Miren Amuriza eta Maialen Arzallus. Berriztarra eta hendaia-rra be 12:30ean hasiko dira abesten, gai librean oraingo honetan.

Saio bi eskainiko ditue, irailaren 6an eta 13an; biak eguerdiko 12:30ean hasiko dira, bazkalaurreko giroa animatu guran

RECUPERACIONES Y TROCEADOS, SAL

Elizalde auzoa, 47
Tel. / Faxa: 94 681 89 79
48213 IZURTZA



Productos químicos para la construcción
Eraikuntzarako gai kimikoak
www.fosroc.com
902 22 22 44
Gasteiz Bidea, 11 - Izurtza



“Munduko Kopan lehiatu gura dot”

Egoitz Murgoiok (1983, Abadiño) Izurtzan be badaukaz sustraiak. Bertakoa dau aita. Urte hasieran ziklo-krosean profesional legez arituko zela jakinarazo eban, Hirumeten eta Carlettiren babesletzari eskerrak. Munduko Kopan parte hartzeko, baina, beste bultzadatxo bat behar dau. Izurtzako Udala babesle legez gehitu jako, eta urte amaierarako errifak aterako ditu. Saria txirrindularitzako arropa ekipamendu konpletoa da.

Urte hasieran ziklo-krosera profesionalki dedikatzeke erabakia hartu zenduen. Zelan etorri jatzun urrats hori emoteko aukera? Aurretik, sei urtean, errepidean zentratuta egon nintzen. Urtebete profesional legez be egin neban Nicolas-Mateos taldean. Aukera hori amaituta, amateuretatik profesionaletara berriro salto egitea gatx ikusten neban, adinagaitik bakarrik bada be, eta, ziklo-krosa betidanik gustatu jatanez, probatzea erabaki neban. Ibiliz izan naz ziklo-kroseko proba solteak korritzen han eta hemen. David Secok be animatu ninduen urratsa emotera.

“Izan neban lesino larriak benetan zer gura neban argi izateko balio izan eustan, eta txirrindulari izan gura dot”

Segituan irabazi zenduen ziklo-kroseko lehenengo lasterketa, Osintxun. Ondoren, Bizkaiko txapelkun izan zinen Elorrioren. Osintxukoa Espainiako Txapelketako proba zen, eta gogoan dot zirkuitua oso lokaztuta zegoela. Isaac Suarez eta holako txirrindularien parean ibili nintzela ikustea pozgarri egin jatan. Elorriokoa Euskal Herriko Federazioak antolatu eban. Javier Ruiz de Larrinaga hiru segundugaitik nagusitu jatan, baina arabarra da; neu izan nintzen lehenengo bizkaitarra.

Nork esan behar eutsun hain maila onean ibiliko zinela orain hiru urte tibia eta peronea apurtu zenduzenean. Sasoi haretan errepidera bueltatzea be oso gatx ikusten neban. Medikuek egoera nahiko beltz ipini eusten. Orduan, nire helburu nagusia hanka bizimodu normala egiteko adina errekeratzea izan zen. Zorionez, errekerat-

zino prozesua ondo joan zen. Neuk be neure aldetik neukan dena emon neban.

Esperientzia harek txirrindulari legez zaitzen lagundu deustu?

Batez be, benetan zer gura dodan argi izaten lagundu deust. Benetan gura dodana bizikletan ibiltzea dela ohartu nintzen.

Urriaren 4an Munduko Kopa hasiko da Trevison (Italian). Kopan parte hartzeko babesle bila zabilz.

Bai. Munduko Kopa bederatzi probek osatzen dabe, eta badakit denetan ezingo dodala parte hartu; probaren batek Euskadiko Txapelketagaz bat egingo dauelako, esaterako. Igaz proba bitan parte hartu neban, baina asmoa aurtan ahal dodan denetan korritzea da. Lasterketa batzuk Belgikan eta Herbeheretan dira. Herri horreetan ziklo kroserako ikaragarriko afizinoa dago.

Aurretik Izurtzan daukazu hitzordua.

Ez dakit bestelako konpromisoek ahalbidetuko deusten, baina ahal dodan guztia egingo dot Izurtzako proban parte hartzeko.

Herri-kirol erakustaldia bihar arratsaldez

Bihar, 17:00etatik aurrera, herri-kirolek hartuko dabe plaza ingurua. Izan be, sokatira, txorokil-batze, txinga, zaku lasterketa, fardo jaurtiketa eta igel txapelketa saioak egingo ditue bertaraten direnen gozagarri.

Jaietako kirol eskaintza ez da herri-kirole-tara mugatuko. Frontenis txapelketa antolatu daben baxotxean bikote askok parte hartu dau; ekimen arrakastatsua izan da. Horregaitik, aurtan be ez dau hutsik egingo halako ikusmina sortzen dauen ekimenak. Pilota partiduak be jaietako egitarauaren ezinbesteko atal izan ohi dira. Bihar, 10:30ean, kanporaketa faseak jokatuko dira, eta martitzenean finalak. Jaietan sustraitutako kirol ekitaldiei buruz gabilzela, ezin aitatu barik itzi hilaren 12ko mendi bike ibilaldia. 16:00etan abiatuko den lasterketak 18. aldia dau aurtan.



Galdaketa eta Siderurgirako Produktuak

Foseco Española, S.A.
Elizalde auzoa, 5 - 48213 Izurtza (Bizkaia)
Tel. 94 620 25 00 / Faxa. 94 620 37 73
115 Posta Kutxa - 48200 Durango (Bizkaia)

IZURTZAKO
HERRIKO TABERNA

BEREZITASUNA:
URDAIAZPIKOA • SOLOMO IBERIKOA
SALAMANCAKO TXORIZOA



TELEFONOA: 94 620 20 24 - IZURTZA

ERITZIA[>]

kolaborazioa



Julen Orbegoza

Gutunak @

Apatako piszinen egoera

Urtero gertatzen da Apatako piszina irekitzeko eguna atzeratzea, baina aurten gertatu dena lotsagarria izan da. Ekainaren 13an zabaldu behar ziren, baina 17an zabaldu zituzten, bost eguneko atzerapenarekin.

Urte batetik bestera ez dituzte apurtuta dauden gauzak konponzen. Hau da, iazko urtean apurtuta zeuden ur estalkiak aurten lehenengo egunetik apurtuta agertu dira. Norbaitek hanka bertan sartu gero zer gertatu lekiokoen kontutan hartu barik.

Beste urteetan baino bi dutxa gutxiago eduki ditugu. Bertan lorontzi handi batzuk jarri dituzte. Horren ondorioz 5-10 urteko ume guztiak beraie dagokien piszina sartu ahal izateko -hau da, piszina ertainera sartu ahal izateko- handitik pasatu behar izan dira, honi dagokion arriskua kontutan eduki barik. Adin hauetako ume askok ez daki igerian; beste batzuek jakin bai, baina ez handian egiteko beste, lurra ez dutelako ikutzen; 10 urtetik gorakoak, arineketan eta bultzaka jolastan dutenez, ez dira begira ibiltzen edonor bultzatuz (beraiek ez daukate inongo errurik),.....

Bi dutxa gutxiago edukitzeaz gain, uztailearen 31tik kanpoko dutxak ez dabilta; hau da, astebetetz, hobeto esanda, 9 egunetz piszina barik egon gara arazo batzuegatik. Gauza bat edo arazo bat konpontzeko beste gauza bat apurtu beharra dago? Ez al da derrigorrezkoa uretan sartu baino lehen dutxatik pasatzea? Datorren urterako konponduko al dituzte dutxak? Gai izango al dira?

Itxita egon diren egunengatik astebete geroago ixtea erabaki dute; hau da, irailaren 13an itxi barik 20an itxiko dute. Aste hori norenzatz? Ikasten daudenentzat, lanean daudenentzat...? Idatzizko kekak udaletxean bete eta utzi genituen. Eman duten konponbidea nori begira eman dute? Hartu den erabakiarekin ez gaude batere ados.

Beste berrikuntza bat ere egon da. Txikiak handien piszina ez pasatzeko jarri duten hesia izan da. Ume txikiak dituztenentzako lasaitasun apur bat, ondo dago.

Aurten piszina hartu dutenek ondo eraman dute. Dena garbi egon da. Zaborrak egunero aldatu dituzte. Janaria ere izugarria egon da, bai kalitatez bai kantitatez,... Orokorrean langileek ondo zaindu gaituzte. Agur bero bat eurentzat.



Apatako eta Elorrioko bazkideak

AHTaren aurkako Udakomartxa'09

Irailaren 5etik, larunbatetik, 12a arte, Gazteiz eta Bilbo arteko AHTaren ibilbidean zehar Fomento Ministeritza burutzen ari den lanak zeharkatuko ditu oinezko martxa batek. Ekimen hau azpiegitura honen aurkariak diren izaera ezberdinetako herri taldeetatik abiatu da.

Larunbatean, 5ean, arratsaldez Gazteiztik abiatuz, martxa honen asmoak hiru dira: alde batetik, AHTaren lanek sorturiko kalte izugarriak bertatik bertara ezagutzeko aukera eskaintzea, aldi berean oraindik kaltetzeko baina gizarte eta ingurumenaren aurkako azpikeria honek jarraitzekotan txikitu eta desagertuko lirakeen inguruak ezagutzea; bestalde, AHTa denboran eta espazioan laguntzen dioten mota guztietako azpiegitura egitasmoekin (autobide, autopista, ingurabide, superportu, tentsio oso handiko lerro, zentral termiko, errauskailu, gasbide...) nola dagoen harremandua ikustea, garapenzalekeriaren eromenean muturreraino doan gaur egungo sistema sozio-ekonomikoaz beste egiteko hausnarketa kritikoa sortu eta berarengandik betiko nola alden du eztabaidatzea; eta azkenik, sozial mailan injustua eta ingurugiroarentzat natura-suntsitzailea den azpiegitura honen txikizioak geldiarazteko ofentsibara pasatzeko, beraien artean indarrak eta baliabideak batu nahi dituzten norbanako eta talde guztien arteko harremanak sendotzea; bestalde, martxan zehar AHTaren salaketa ekintza mota ezberdinak burutzeko aukera izango dugu.

Gaingan dugun krisialdiak (zeina soziala, ingurumenarena eta ekonomikoa den) argi utzi du sistema kapitalistak (hazkunde mugagabeak) kriminala, injustua eta ingurumen ikuspegiarekiko bide-erazina izateaz gain, muga fisikoekin (energetikoak, baliabide naturalak...) topo egin duela. Bitartean, boterean diren politiko eta enpresari buruak, inoiz baino erasokorrago, egitasmo handinahikien pilaketa etengabearen bitartez, garapenzalekeriak dakarren basakeriaren amildegira garamatzen noranzkoan sakontzen ari dira. Honen aurrean gure ezinbesteko da egin beharra jendarteari hau guztia helarazi eta kontzientziak piztuaz; hausnarketa eta ekin-tzan batu behar gara munstro hau gelditzeko. Inoiz baino beharrezkoagoa da borroka hedatzen jarraitzea eta berau aurrera eramatea, pentsamendu kolektibotik gogor txertatuak dauden "progresoa", hazkunde material gisa, eta "garapena", bizitzaren oinarria den naturaren suntsitzaile bezela deserrotzeraino.

Martxan parte-hartzea bertara bildu nahi duten guztiei irekita dago, horretarako ibilbideko herrietan zer leku eta zer ordu-tan aterako den informatuko dugu. Denok gaude gonbidatuak. AHT gelditzea denon erantzukizuna baita.

Durangaldeko Asanblada Antidesarrollista

Klik batean @



Txakur gorotzak

Argazki hau Durangoko Etxebarria prentsa dendaren bestaldean, dagoen botikaren ondoan aterata dago. Irudiak txakurren jabeek duten jarrera lotsagarria eta arduragabekeria erakusten dute eta baita Durangoko Udalaren eta udaltzainen jarrera pasiboa be. Ea norbaitek amaiera ematen dion egoera honi!

(Ibon Lizundia)

Tamiflua

Pekatarri hutsak gara. Fedea, eliza ama santuarekiko fedea, sakabanatuz doa. Sinesgabeak gara. Eraiki dugun sistemari, guztion artean eraikitako sistemari, muzin egiten diogu. Politikariak lapurtzat ditugu, gezurtiak dira; legeak errudunak babesten ditu; egungo familiak ez du telebistako albistegi batek baino gehiago iraugun: atzera begira bai, daukagun familia sendoa da oso, baina eraikiko dugun etxeari kostata jarriko dizkiogu zutabe mugiezina.

Azken hamarkadetakoa egoera beltza dela diozu. Ez duzu eliza ezertarako zapaltzen, eta lehen erlijioak konpon-tzen zituenak orain zintzilik geratzen zaizkizu. Historian zehar gizarteak onerako eta txar-erako gurtu dituen liderrik ez dago gaur egun. Gu salbatuko gaituen eta erreferentzetan genituen militarrik, iraultzailerik, diktadorerik, bizardun filosofo-rik edo mediku zororik. Eta ez, futbolari batek ez du balio.

Orain, nork salbatuko gaitu? Komunismoa zela; hegaztien gripea zela; nazioarteko terrorismoa zela eta dela; Causescu, Saddam eta Bin Laden izan direla; arma nuklearrak, kapitalismoaren porrota, langabezia infinitoa, txerrien gripea eta aldaketa klimatikoa izaten ari direla; demografiaren hazkunde izango dela; roboten eraso definitiboa izango dela... Nori emango diogu gu salbatzeko ardura eta eskumena? Ez daukat argi. Batzuek armada nazionalari; besteek liberalismoaren errebisionistei. Gaur, orain, ordea, Tamiflu delakoak salbatuko omen gaitu. Tabakoak eragindako hildakoak, auto istripuetako biktimak, alkoholismoak eragindakoak, horiek hurrengorako utziko ditugu.

Ulrich Beck soziologoak gertatzen zaigunari izena jarri zion: 'Arriskuaren Gizartea'. Hurrengo zutabearen izango dugu hizpide.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

diruz lagundutakoa

anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarteak
2009ko irailaren 4a - 8. urtea - 341 zk.

Laguntzailea: Eta honako Udal guztiak:

Abadiño	Elorrio	Mañaria
Atxondo	Garai	Mallabia
Berriz	Iurreta	Otxandio
Durango	Izurtza	Zaldibar

Zuzendaria: Jone Guenetxea.

Erredakzio burua: Joseba Derteano.

Administrazioa: Itziar Belar eta Miren Abasolo.

Publizitatea: Itziar Azula, Goretti Alonso eta Amaia Huarte.

Erredakzioa: Aitziber Basauri, Maria Gonzalez, Itsaso Esteban, Markel Onaindia

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.

Argazkilariak: Iban Gorriti, Judit Fernandez eta Kepa Aginako.

AGENDA >

> ANBOTOko agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Irailaren 6an, 18:00etan

MAGIA IKUSKIZUNA

Jai giroa nagusi izango da egunotan Izurtzan Erdoitzako Andra Mari jaiak atxaki hartuta. Bestelakoan artean, magia harritu zein gozatzeko aukera ezin hobe izango dabe gaztetxoek, baita helduek be. Txan mago ezagunaren trikimailuek aho zabalik itziko dabe bat baino gehiago, domekan. Ondoren, Lotxo eta bere taldeak hartuko dau jai giroa berotzeko ardura. Horreek 19:00etan daukie hitzordua jarrita, Izurtzako plazan.

BERRIZKO UDALA

IRAILA

BERRIZKO UDALA

Irailak 9
Udal bilkura, Udaletxean. 19:00.

Irailak 11
• Frankismoaren biktimen oroimenerako eguna. Omenaldia, erakusketa, musika emanaldia...
• Musika. Durangoko Orfeoa. Udaletxeko lorategian. 21:30

Irailak 14
Kirol ikastaroak. Berrizburu kiroldegiko ikastaroetan izena emateko epea amaituko da.

Irailak 18
• Haur antzerkia. Todo Redondo (musikala). Kultur Etxean. 17:30
• Musika. Mongo. Udaletxeko lorategian. 21:30

Irailak 25
Erakusketa. Koldo Gisasolaren argazkiak. Kultur Etxean.

Lehiaketa
Berrizko I. Eskultura Lehiaketa. Oinarriak ikusgai: www.berriz.org atariko 'albistek' atalean

DEIAK

DURANGO

- » **Odola emoteko aukera**, Eguenero, 16:30etik 21:00etara bitartean, Anbulatorio Zaharrean. Mugarra odol-emole elkarteak deituta.
- » **2008-2009 ikasturtean zehar euskara ikastaroak egiteagaitik diru-laguntza eskatzeko**, urriaren 9a arte dago aukera, Udaleko erregistroan. Horretarako 12.400 euro gorde ditu Udalak.
- » **2009an zehar kanpoko errotuluak eta webguneak euskaraz jartzea-gaitik diru-laguntza eskatzeko aukera**, urriaren 31a arte, Udaleko erregistroan. Laguntza horretarako 9.000 euro gorde ditue eta Euskara Sailaren bitartez emongo ditue.

ZALDIBAR

- » **Zapatublai aisialdi egitasmoan parte hartzeko izena emoteko epea**. Irailaren 10etik 18a bitartean dago aukera, Udaletxean. Zapatuetan, hamabostean behin, 16:00etatik 19:00etara izaten da, urriaren 10ean hasi eta ekainaren 12a arte.

ERAKUSKETA

ERMUA

- » **'Sahara: loreak basamortua'**. **Clemen Correderearen argazkiak**. Irailaren 6a bitartean, Lobiano kulturgunean. Komite Internazionalistak antolatuta.
- » **Pintura eta eskulturak. Alberto Ramirez**. Irailaren 7tik 20ra bitartean, Lobiano kulturgunean.

JAIK

ABADIÑO

Andra Maria-Muntsaratz

- » **Txopoa altxatzea**, irailaren 4an, 19:00etan, eta **parrillada**, 20:30ean. **Erromeria**, 22:00etan.
- » **Buruhandiak**, irailaren 5ean, 11:00etan, eta 12:00etan **puzgarriak eta karts-ak**. Aldi berean, **mozorroen izen-emotea eta hasierako argazkia**.
- » **Paellen aurkezpena**, irailaren 5ean 14:00etan, eta 16:00etan **mus eta tute txapelketak**.
- » **Merkatu txikia**, irailaren 5ean 17:30ean, eta **haurrendako tailerrak** 18:00etan. **Kale-antzerkia**, 19:30ean; **tortillen aurkezpena**, 21:00etan.

- » **Su artifizialak**, irailaren 5ean, 22:30ean, eta 23:00etan **karaokea eta erromeria**.
- » **Buruhandiak eta ponyak**, irailaren 6an, 11:00etan, eta 12:00etan **xakea** (aldibereko partidak). **Pailazoak**, 13:00ean, eta **herri-bazkaria**, 14:30ean. **Disko Txiki**, 17:00etan, eta 19:00etan **txokolata eta paineluak erretzea**.
- » **Meza**, irailaren 8an, 12:00etan, eta 12:30ean, **dantza ikuskizuna**.

ELORRIO

Ferixa Nausikoak

- » **Pilota partiduak**, irailaren 4an, 18:00etan, plazako frontoian (elorrioko pilotariak). **Kontzertua: Lor + Kop**, 22:30ean, Txosnagunean. Gauerdian,



DJ festa: DJ Gaizka (reggae, dub, Hip Hop), Ateneoan.

- » **Txirindulari lasterketa: Emakumezkoen Espainiako Kopa**, irailaren 5ean, 11:30ean eta 17:00etan, Gernikako Arbola plazan. **La Calle Es Nuestra txaranga**, 19:00etan plazan.

- » **Txupinazora jaitsiera eta Los Pompers taldeagaz kale animazioa**, irailaren 5ean, 19:30ean Aldatzekuan.




Txupinazoa eta entziero txikia, 20:00etan. **Danborrada**, 22:30ean, Gernikako Arbola plazan. Gaztetxean **kontzertua**, 23:00etan.

- » **Erromeria: Persuasión**, irailaren 5ean 23:30ean, Urarkan. **Kalejira**, gauerdian hirigunean, eta Ateneoan **disco festa: Kogollo Crew (elektronika)**.

- » **Acrovisión (akrobaziak eta sua)**, irailaren 5ean 00:45ean, Gernikako Arbola plazan.

- » **XXVI. Abere eta Nekazaritza**

- Azoka**, irailaren 6an 10:00etan, Feriagunean. **Afizionatuen esku pilota partiduak**, 17:30ean Hilario Azkarate frontoian.



- » **Munduko dantzak eta musikak: Ballet Jammu**, irailaren 6an 18:00etan, Gernikako Arbola plazan. **Rex taldeagaz erromeria**, 19:00etan Aldatzekuan.

- » **Bertso saioa: Miren Amuriza, Etxahun Lekue, Arkaitz Estiballes eta Fredi Paia**, irailaren 6an 19:30ean, Gernikako Arbola plazan.

- » **Anje Duhalde**, irailaren 6an 20:30ean, Txosnagunean. **Suzko zezena**, 22:30ean Gernikako Arbola plazan.



- » **Mariatxien Gaua**, Irailaren 6an: **Viva Mexico**, Gernikako Arbola plazan, Portalekuan eta Pipon. **Mariachi Guadalupano**, Urarka plazan, beheko tabernetan eta Urarka kalean, eta, **Mariachi Garibaldi**: Tangerren, Gurian eta Alkartun; 23:00etan, 23:30ean, eta gauerdian, hurrenez hurren.

- » **Haur parkea**, irailaren 7an 11:30ean, eta 17:00etan Gernikako Arbola plazan, eta **koadrilen arteko bazkaria**, 14:00etan Aldatzekuan. **Sienta la cabeza taldeagaz animazioa**, 17:30 arte. **Koadrilen jaitsiera La Boheme Can-Can taldeak girotuta**, 18:00etan Aldatzekuan irtenda. **Koadrilen arteko jokoak**, 19:00etan Gernikako Arbola plazan. Aurretik, Urarkan 18:30ean, **umeendako erromeria Atxikistan taldeagaz**.

- » **Erromeria: Amaur**, irailaren 7an



22:00etatik 23:00etara, Txosnagunean. Gernikako Arbola plazan, **suzko zezena**, 22:45ean, eta, 23:30ean, **Abiba disko jai**.

- » **Haur parkea**, irailaren 8an, 11:30ean eta 17:00etan, Gernikako Arbola plazan. **Perkusino tailerra** 18:00etan, Tamsna taldeagaz.



- » **Futbol partiduak**, irailaren 8an 18:30ean, Eleizalden. Aldatzekuan 19:30ean, **erromeria: Zurrutz**.
- » **Zaldia Lagun**, irailaren 9an 10:30ean, Gernikako Arbola plazan,

iraileko agenda

Irailak 5-6-12-13 • Iurretako Txirindulari Elkartearen 09:00 Iurretatik Iurretara. (90-100km)

Irailak 13 • Iurretako Kofradien Eguna Laixiar zelaian.

Irailak 14-15-16-17 • San Migel jaiak 14-15 17:00 VII. Txapelketa. Pilota partiduak (final laurdenak) 16-17 17:00 VII. Txapelketa. Pilota partiduak (final erdiak)

Irailak 14 • Ibarretxe kultur etxean 19:00 Sigi-saga Durangaldeko Bizikletazaleen elkartearen aurkezpena

Irailak 15 • Ibarretxe kultur etxean 18:30 Anderebide elkartearen aurkezpena. Ondoren "Symphoniky" taldea

Irailak 18 • San Migel jaiak 18:00 Pirritx eta Porrotx (Sarrera dohainik). Olaburu frontoian

IURRETAKO UDALA

urme eta gaztetxoentzat. **Ginkana**, 15:30ean, Txirrindulari taldeak eraturata. Txinbirri ikastolak eraturata, **umeendako tailerrak** (euria bada kiroldegian) 16:45ean, eta, 18:15ean **txokolatada**.

» **Igel txapelketa jubilatuen artean**, irailaren 10ean 12:00etan, Aldatzekuan. Gaztetxean, **Gazte Eguna: bazkaria, rokodromoa...**

» **'Chavalillo del Rock'**, irailaren 10ean, 22:30ean, Elorrioko Gaztetxean. Herriko taldeek bultzatutako ekimena.

IZURTZA

Erdoitzako Andra Maria

» **Txupinazioa**, irailaren 4an 20:00etan, eta 23:00etan **kontzertuak: Desperdicio + The Strikers + Saltxitxas Law + Trastorno**.

» **Pilota partiduak**, irailaren 5ean 10:30ean, eta 12:00etan **basurde txapelketa** (aurkezpena 14:30). **Enkartzelada** 14:30ean, eta 17:00etan **herri-kirolak: sokatira, txorokil batzea, txingak, zaku lasterketa, fardo jaurtiketa eta igel txapelketa**. Ondoren, 19:00etan, **bingo popularra**.



» **Kalejira**, irailaren 6an 10:00etan, eta, 11:00etan, **meza**, Santa Agedako basilizian. **Mendigain dantza taldearen ikuskizuna**, 12:00etan; 12:30ean, **bertsolariak: Arkaitz Estiballes, Iñaki Viñaspre, Oihane Perea eta Estitxu Eizagirre**. **Gai-jartzailea: Maite Berriozabal**.

» **Berto-bazkaria**, irailaren 6an 14:30ean, **Magoa**, 18:00etan. **Lotxo eta bere taldea**, 19:00etan.

» **Kalejira**, irailaren 8an 10:00etan. **Meza**, 11:00etan, Erdoitzako basilizian, eta **dantzariak** 12:00etan. **Pilota partiduak**

(finalak), 12:30ean; **umeendako jolasak**, 15:30ean.



IKASTAROAK

BERRIZ

» **Igeriketa ikastaroak, cycling, aerobic, batuka, mantenu gimnasia, pilatesa...**, irailaren 21ean hasita. Irailaren 14a artean emon leiteke izena, Berrizburun. Lekuen zotz egitea 16an.

DURANGALDEA

» **Euskalduntzea, EGA eta HABA azterketa ofizialak, hizkuntza eskakizunak, autoikaskuntza...**, AEK-euskaltegietan. Matrikulaldia zabalik (abarrak@aek.org / 94 681 73 49; abizari@aek.org)

94 658 21 11; zornotza@aek.org / 94 673 43 70).

DURANGO

» **GAP, batuka, tenis eta spin-bike**. Landako kiroldegian emon leiteke izena. **Igeriketa ikastaroetarako** irailaren 7a arte (94 603 00 31 / www.durangokirolak.net).

» **Udal euskaltegia**. Irailaren 18a arte egongo da aurrematrikulatzeko aukera (94 603 00 40).

ZALDIBAR

» **Euskara eskolak eta Berbalagun**. Matrikulaldia, hilaren 18a arte (eguen@zaldibar.org / 94 682 70 16).

LEHIAKETA

ABADIÑO

» **2010. urteko Argazki Lehiaketa**.

Abadiño udalerrira eta bere ingurua gai hartuta aurkeztu leike lanak www.abadiano.org webgunean erregistratutako 16 urtetik gorako argazki helerazo behar dira, webgunearen bitartez, irailaren 30a bitartean. Urriaren 1ean emongo dabe jakitera aukeratuak zeintzuk diren, eta 31 arte emon ahal izango da botoa. Boto gehien eskuratuak dituen argazkiei 12 sari emongo deutseez eta 2010eko udal egutegiaren argitaratuko ditue. Boto gehien dituen argazkiak 300 euro be jasoko ditu (www.abadiano.org).

BERRIZ

» **I. Eskultura Lehiaketa**. Proiektua azaroaren 2tik 27a artean aurkeztu leike, norbanakoak zein talde batek (artelanaren maketa eta kokapena zehaztu behar da), Kultur Etxean. Erakusketa egingo da, abenduaren 7tik urtarrilaren 8a arte. Saria:

18.000 euro. Udalak eraturata (94 682 40 36 / 94 682 45 84).

DURANGO

» **Sanfaustoak iragartzeko kartel lehiaketa**. Azken eguna irailaren 5a, Herritarren Arreta Zerbitzuan 12:00ak artean. Saria: 1.000 euro.

ERMUA

» **Postal lehiaketa**. Azken eguna irailaren 30a: 'Postal Lehiaketa' Euskal Birusa kultur elkarteak, 247 postakutxa Ermua (48260). Saria: 1.a, Kanariar ireltera bidai; 2.a, lagun birendako asteburu pasa landetxe batean; 3.a, lagun birendako egun pasa spa baten. Parte-hartzaileen artean Mendiola jatetxean lagun birendako afaria be egingo dabe zotz. Bestalde, 12 urte bitartekoen artean irabazleak 50 euroko erosketa txartela lortuko dau; 2.ak 40koa eta 3.ak, 30koa.

MUSIKA

DURANGO

» **V. Gau Elektronikoa: DJ Jor-G (Habitual Fresh Sessions) + DJ Stan (Inox Azpeitia) + etxeko DJ-ak (Ruben Kostas & Iker Undersound)**. Irailaren 4an, 22:00etan, Plateruenean.

ZINEMA

DURANGO

Zugaza

¿Qué les pasa a los hombres?

Zuzendaria: Ken Kwapis
barikua 4: 19:00 / 22:00
zapateria 5: 19:30 / 22:30
domeka 6: 19:30 / 22:30
astelehena 7: 19:00 / 22:00
martitza 8: 20:00



Up (3D)

Zuzendaria: Pete Docter
zapateria 5: 17:00
domeka 6: 17:00



Irailaren 4an, 22:30ean

KOP KATALUNIARRAK + LOR-EN 'ROCK TERAPIA'

Euskal Herrian, baita Durangaldean be, geroago eta jarraitzaile gehiago daukazen Kop talde kataluniarrak eskainiko dau, gaur, kontzertua Elorrioren. Bertako herriko Lor taldeagaz batera emongo dabe kontzertua, Txosnagunean. **Rock Terapia** azken lana aurkeztuko dabe elorriarrek herrikideen aurrean. Kop-ek, barriz, gatazka sozialak, okupazioa edo elkartasun internazionalista hartuko ditu hizpide, doinu gogorragoak dituela lagun. Bestalde, gazteak eta ez hain gazteak elkartuko ditu Anje Duhaldek, domekan, irailaren 6an.

BOTIKAK

Barikua, 4

- 09:00-09:00
- Navarrio (Artekale 6 - Durango)
- Zapateria, 5**
- 09:00-09:00
- Balenciaga (Ezkurdi 8 - Durango)
- 09:00-13:30 (*14:00)
- Sagastizabal / Campillo / San Roma / Navarrio / De Diego / Unamuzungaza (Durango)
- Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
- Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)*
- 09:00-22:00
- Larrañaga (Berrio Otxoa 6 - Elorrio)
- Domeka, 6**
- 09:00-09:00
- De Diego (Intxaurrondo 22 - Durango)
- Astelehena, 7**
- 09:00-09:00
- Etxebarria (Montebideo 2 - Durango)
- Martitza, 8**
- 09:00-09:00
- Campillo (Montebideo 24 - Durango)
- 09:00-22:00
- Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
- Eguaztana, 9**
- 09:00-09:00
- Sagastizabal (Askatasun Et. 19 - Durango)
- Eguena, 10**
- 09:00-09:00
- SanRoma (Uribarri 5 - Durango)
- 09:00-22:00
- Larrañaga (Berrio Otxoa 6 - Elorrio)

TELEFONO INTERESGARRIAK

- SOS Deiak**.....112
- DYA**94 620 28 00
- Gurutze Gorria**94 681 09 49
- Osakidetza**94 600 72 00
- Ertzaintza**94 466 93 00
- Suhiltzaileak**112
- GARRAIOAK**
- Euskotren902 54 32 10
- Durango94 681 02 32
- Bizkaibus94 448 40 80
- Pesa902 10 12 10
- Continental Auto945 286 466
- TAXIAK**
- Abadiño946 814 470
- Matiena606 459 988
- Durango Geltokia....946 811 001
- Goco Tour946 202 860
- Tele Taxi944 102 121
- Radio Taxi Bizkaia ..944 269 026
- Elorrio Geltokia946 820 040
- J.L. Uriarte ..670 402 002
- I. Estebez670 678 273
- M Galeano.....946 582 854
- Iurreta946 201 565

UDALAK

- Abadiño94 621 55 30
- Atxondo94 682 10 09
- Berriz94 682 45 84
- Durango94 603 00 00
- Elorrio94 658 27 12
- Garai94 681 63 93
- Iurreta94 620 12 00
- Izurtza94 681 35 48
- Mallabia943 17 14 61
- Mañaria94 681 89 98
- Otxandio945 45 00 20
- Zaldibar94 682 70 16

UDALTAINGOAK

- Abadiño94 621 55 33
- Berriz94 682 40 36
- Durango94 603 00 10
- Elorrio94 682 02 18
- Iurreta94 620 08 88

BESTELAKOAK

- Arriola94 658 31 92
- San Agustin94 603 00 21
- Zornotza Aretoa94 630 01 68
- Gazte informazioa 94 603 00 30

- Txanporta KE94 620 36 47
- Errota KE94 466 94 16
- Gorabide94 681 24 35
- Alkoholiko Anonim. 94 415 07 51
- Nekazal bulegoa94 681 15 20
- Uren Partzuergoa ..94 681 74 86
- Butanoa (UME).....94 681 08 77
- Araztegia94 620 28 00
- Foru Ogasuna.....94 681 07 42
- INEM Durango94 681 12 96
- Gizarte Segurantzaz 94 681 49 58
- Epaitegiak.....94 603 00 51

KIROLDEGIAK

- Igerilekua
- Astola94 620 29 29
- Igerilekua
- Atxondo94 623 14 38
- Berriz94 682 43 74
- Durango (Landako).....94 621 51 30
- Durango (Tabira)94 621 51 50
- Elorrio94 682 10 27
- Zaldibar94 682 73 74

EGURALDIA

21° BARIKUA ☁

Temperatura gehiago jaitsiko da eta euri apur bat egingo dau. Giro freskoa izango da. Zerua oso hodeitsu egongo da eta euri arina egingo dau. Arratsaldean atertzera egingo dau, eta hodeitza arindu egingo da.

29° ZAPATUA ☁

Eguraldia hobera egingo dau berriro. Lehen orduetan zerua hodeitsu egongo da. Ostarte handiak zabalduko dira, eta arratsaldeak aurrera egin ahala, hodeiak desegiten joango dira.

29° DOMEKA ☁

31° ASTELEHENA ☀

31° MARTITZENA ☁

Gremioen gida



Iturgintza

Klimatizazioa
Kalefazioa
Iturgintza
Gasa

Arlandi ITURGINTZA

Arlandi, 16 - behea, 3. atea
Sakelekoa: 607 24 58 54
Faxa: 94 681 61 55
Iurreta

Baimendun
Instalatuzailea

Elektronika

URBASA Elektronika

SALMENTA ETA KONPONKETA - TB - SONIDIA - BIDEA - IRRATIA
KOMUNIKAZIOA - ANTENA KOLEKTIBOAK - SATELITE BIDEZ - ALARMAR

Askatasun Etorbidea, 13
Tel.: 94 681 33 03
Durango

Panasonic

Telebés
Instalatuzailea
Ofiziala

Mallabiena

M.Z.O ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industriagunea, 6
48215 Iurreta • Tel.: 94 681 88 62
mallabiena@mallabiena.com

K21

Argiztapena

MARKIEGI

Plateruen plaza 4, behea
48200 Durango
Tel.: 94 620 35 20
94 620 21 76
Faxa: 94 681 56 95
markiegi@markiegi.com

Gas

CIAL-UME
gas-likidoen banaketa-etxea, s.l.

GAS INSTALAZIOAK
ETXE OFIZIALA

INSTALAZIOAK ETA ALDIZKAKO BERRIKUSTEAK

Iurreta, 7 IURRETA Komentu kalea, 2-A DURANGO
Tel.: 94 681 0877 Tel.: 94 681 02 50

gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK
AZULEJO, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOIA
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA

Lorazaintza

Jardines Patxi Lorategiak

Mantenua eta Diseinua
Ländaketa eta Inausketak
Ureztatze sistemak
Barrualde eta Kanpoaldea
Eskatu zure aurrekontua beldur bariak

Santikurutz, 15 48200 DURANGO Myriam 696 463 086
Faxa: 944 668 853 Patxi 696 463 085

Eraikuntza

arlax

Baserriak eta etxebizitzak
berrizatu eta zaharberritzea

Zurezko egiturak

ERAIKUNTZA
IGELTSERITZA

Barrualdea diseinatzea

Teilatu, fatxada, bainugelak, etab.

Antso Estegiz etorb.: 11 - 3 B Sakelekoa: 615 77 91 70
DURANGO 605 77 03 57

Ubide
iturgintza

188 PK:
48200 DURANGO
94 603 05 06
625 70 22 08
ubide@euskalnet.net

Iturgintza, gasa eta berokuntza

Pintura

Ibai Urien Madrazo

Pintura
apaingarria
eta industriale

Pinturas Sagasta
Pinturas

Sagasta auzoa
Arbe Goikoa
48220 ABADIÑO
Bizkaia
Tel.: 629 143 944

Barne Dekorazioa

a-metz
[barne] diseinua

Ibaizabal, 3A behea, 1D
48200 Durango/ Bizkaia
T. 94 681 84 81
M. 600 267 373

Diseinua
Dekorazioa
Idelak
Proiektuak - 3D
Legalizazioak
Erreforma
Gremioen
koordinazioa
Aitzariak
Osagarriak

www.a-metz.com

HEMEN AGERTU

GURA BADOZU

DEITU

94 621 79 02

KIROLAK >



Argazkia: Judit Fernandez

Ospakizuna eta lana lotzeko denboraldia

Urtan hasiko den denboraldia berezia da Tabirakorentzat. Lehiaketa ofizialeko partiduak klubaren 50. urteurrena ospatzeko ekintzekin tartekatuko dituzte. Lana eta ospakizuna eskutik helduta ibiliko dira urtebetean. Landako kiroldegia jai giroko egunen eta tentsioz betetako norgehiagoken eszenatoki bihurtuko da. Gogoz eta ilusioz hartu beharreko hileak datoz aurretik.

Urteak joan eta denborak aldatu arren, Tabirakok sendo eusten dio bere filosofiari. Horrela, aurtengo nagusien talde biak egituratzeko orduan ez da fitxaketa handirik egingo; etxean bilatuko dute oinarriak indartzeko porlana. "Beheko mailetan gogor dabilta lanean, eta gure sustraiei jarraituz etxeko gazteei emango diegu aukera", azaldu du Hilario Perez Tabirakoko lehendakariak.

Aulkitik etorriko da, behar bada, nobedirik handiena. Gizonen gidaritza Tomas de Castrok hartuko du: "laz bigarren entrenatzaile lanetan aritu zen eta klubaren filosofia ondo ezagutzen du". Emakumeen aulkian ez da aldaketarik emango. laz legez Josu Zugainek jarraituko du. Emakumeek iazko denboraldi txukuna errepikatzea izango dute helburu. Bestelakoa da gizonen kasua;

50. urteurrenako ekitaldiek bat egingo dute aurten partidu ofizialekin

iragan urtean ez zituzten aurreikuspenak bete, eta jaitsiera fasea jokatu behar izan zuten.

Bestalde, Tabirakok webgune berria estreinatuko du: "Erabilterrazagoa eta modernoagoa izango da eta klubaren logo berria izango du". Datorren asterrako sarean izatea espero dute.

Baqué Torneoa

Ekitaldiz betetako aurrendenboraldia du Tabirakok. Hilaren 12an eta 13an Baqué Torneoa jokatu dute gizonen; 19an eta 20an emakumeek. Klubaren aurkezpen ofiziala irailaren 25ean dute. Bestalde, urteurrenako ekitaldien barruan, irailaren 22an Bruesa eta Bilbao Basqueten arteko partidua jokatu da, 19:30ean hasita. Irailaren 26an, berriz, Perfumerias Avenida Salamanca eta Hondarribia-Irunek jokatu dute 19:30ean. ■ J.D.

24 Etxeko estreinakoa Laudioaren aurka

Aro berriari ekin gura dion Kulturalak Laudio jasoko du bihar Tabiran. Zaleen aurrean denboraldiko lehen garaipena lortzen saiatuko dira Axier Intxaurrearen mutilak.

25 Durango, eskaladaren topagune

Astlehenean hasi eta igandea bitartean Durango goi mailako eskaladaren erdigune bihurtuko da. Azpiegitura guztia prest dago dagoeneko Landako Erakustazokan.

Kulturalak Laudio indartsua hartuko du

Arabarrek 2 B Mailako hainbat futbolari fitxatu berri dute aurten



Intxaurren gustura dago jokalariek orain arte erakutsitako errendimenduagaz. Judit Fernandez

Tabiran eta zaleen aurrean denboraldia estreinatzen (bihar, 18:00etan) ez du edozelako aurkaria izango Durangoko Kulturalak. Laudio hirugarren mailako oilarretako bat da, eta 2. B mailako jokalaririk bat baino gehiago fitxatu du. Gainera, lehenengo jardunaldian galdu egin zuten etxean, Beasainen kontra; garaipen gosez etorriko dira arabarrak. Kulturalaren sarea, ordea, ez da txikiagoa. Etapa berri baten atarian eta ilusioz gainezka, azkeneko bi-hiru denboraldietako duda-mudak ahaztuta aro oparagoari ekiteko gogo biziz zelairatuko dira Intxaurren mutirik.

Santurtziren kontrako lehenengo partiduan puntu bat urratu zuen Kulturalak, etxetik kanpora (0-0). Zelaia txikia izateak goitik behera baldintzatu zuen norgehiagoka. Santurtzik baloia luze erabili zuen erasoko ia arma bakar legez, beti ere bigarren jokaldien bila. Hasierako minu-

Intxaurren dioenez, "errespetuz" baina "garaipenaren bila" irtingo dira bihar

Taldera aurten etorri diren zazpi jokalaririk debutatu zuten Santurtziren kontra

tuetan estu hartu zuten Durangoko taldea, baina minutuak aurrera joan ahala zelaian kokatu eta baloia erabiltzen egin ziren.

Horrela, bigarren zatian gola hur izan zuten hiru-lau jokalditan: "Jokalariek errendimenduagaz oso pozik nago, eta ligari etxetik kanpora puntu bat batuz ekitea positiboa da. Hala ere, zapora gazi-goza geratu zitzaigun. Irabaztea merezi genuela pentsatzen dut", dio Intxaurren.

Fitxatu berrien debuta

Lehenengo partidua horretan aurten fitxatutako batzuek debutatu zuten. Hasieratik jokatu zuten Garikoitz Basaurik, Jokin Bernatolak, Lander Bereziartuak, Joseba Garciak eta Ivan Espinosak. Bigarren zatian Mikel Moreno eta Eriz Rivera zelairatu ziren.

Aurtengo taldea 20 jokalaririk osatzen dute, eta horietatik 11 berriak dira. Erdiak baino gehiago, beraz. ■ J.D.

Carlos Juezek bigarren egin du Zegaman

Cafés Baqué taldeko txirrindulariak aurrean jarraitzen du Euskaldun Sariko nagusian

Carlos Juez Cafés Baqué taldeko txirrindularia denboraldi oso ona osatzen dabil. Oraindino ez du garaipenik lortu, baina parte hartzen duen lasterketa guztietan aurrean dabil, eta, ondorioz, Euskaldun Sariko sailkapen nagusian hirugarren egoteko adina puntu

batu ditu. Bere aurretik Fabrizio Ferrari eta Mikel Filgueira daude; biak Caja Rural taldeko txirrindulariak dira.

Zegamako San Bartolome Sarian David Gutierrez kantabriarra bakarrik izan zuen aurretik Juezek. Txirrindulariek hiru bider

igo zuten Liernia eta behin Zerain. Itxaroten zuten moduan, azkeneko itzulian eta Lierniko eta Zeraingo igoeretan erabaki zen etapa nortzuk lehiatuko zuten. 26 txirrindulariko ihesalditik lauk egin zuten aurrera. Azkeneko sprintean Gutierrez izan zen indartsuena, Juezen aurretik. ■ J.D.

David Gutierrez irabazi zuen lasterketa, lau txirrindulariko ihesaldian

Gotzon Gomez
• Errugbi entrenatzailea



Top 14a Anoetan

Adituarentxokoa

Frantziako Top 14 Ligan iparraldeko bi talde daukaguz; Miarritzeko Olimpique eta Baionako Aviron. Esan beharra dago, gaur egun, Frantziakoa dela munduko errugbi ligarik indartsuena, bertako taldeek fitxaketa ederrak egin baititue, eta aitatu beharra dago hegoaldeko taldeekin alderatuz diru kopuru dezente erabiltzen dabela.

Aurreko urteetan Miarritzek Anoetan lau partidua jokatu ditu, denak Heineken Cup barruan (futbol arloko Txapeldunen Ligaren parekoa); baina oraingoan Top 14aren arauen aldaketa bati eskerrak, liga ospetsuko taldeek partiduak Frantziatik kanpo jokatu leikiez; aldaketa hori aprobetxatuz, Anoetan izango doguz ikusgai taldeak, eta baita munduko jokalaririk onenetakoak be.

Lehenengo partidua abuztuaren 21ean jokatu eben Avirongo baionarrek Parisko Stade Francaiseren kontra. Giro aparta harmailetan bizi izan genduen, eta, gainera, baionarrek ondo merezitako garaipena eskuratu eben: 38-24.

Hilaren 12an, Anoetan, iparraldeko bi taldeen arteko derbya jokatu dabe. Giro ederra espero da Donostian derbya lehenengoz Lapurditik kanpora jokatu dabe-eta. Aukera ezin hobea mugaz bestalde bizi garenontzat, Anoetak Aguilera baino ikusle gehiago hartzen baititu eta ia ezinezkoa izaten baita han sarrerarik lortzea.

Lerro honeetatik festaz gozatzen animatzen zaituet, benetan polita izaten baita goi mailako partidua horreetako giroa. Esaten den moduan, onenak irabazi daiala eta ikusleok gozatu daigula!

Berasaluze eta Olaizola aurrez aurre lurretan

Urriaren 4an, Sanmigeletan, Hiba Zabala eta Alexis Apraiz izango dituzte bizkartzain

Goi mailako pilota partidua antolatuko dute Sanmigeletan. Pablo Berasaluze eta Hiba Zabala berriztarrek Aimar Olaizola eta Alexis Apraizen kontra jokatu dute. Urriaren 4an, igandean, jokatu dute, 17:00etatik aurrera. Udan sasoiaren ibili diren aurrelariak dira, zenbaiten ustez, berriztarra eta goizuetarra.

Partidu nagusiaren aurretik Pablo Berasaluze Pilota Txapelketako kadete mailako finala jokatu dute. Egun berean, eguerdiko 13:00etan hasita, kimu, haur eta gaztetxo mailako finalak jokatu dituzte. Finalurrekoak irailaren 19an dira. Sari banaketan partidua nagusiko pilotariek parte hartuko dute.



Aurreko koadroetan tiki-taka segurtaturik dago. Iban Gorriti



Eguneko sarrera 10 euro da, baina hiru txapelketetako bonoa erosiz gero, 15 euro; beraz, bonoarekin %50 aurreztu daiteke.

Goraino igotzeko modurik badago, datozenek aurkituko dute bidea

Datorrena eskaladari emaniko astea izango da Durangon, eta gaur egungo txapeldunik handienak etorriko dira Dur&Go txapelketara; Patxi Usobiaga eta Chris Sharma, esaterako

Astelehenetik domekara Dur&Go eskaladaren inguruko jaialdi erraldoia ospatuko da Durangon. Antolatzaileak azpiegitura ikusgarria atontzen ari dira egunotan Landako Erakustazokan. Baina galbahean bereiztuta geratzen den urreari, baliozua izanagatik, salduko bada, bitxigileak forma eta izaera eman behar dion moduan, rokodromoak luzituko badu, distira emango dioten haraginik finenak behar ditu; eta antolatzaileek jakinarazi duten parte-hartzaileen azken zerrandari erreparatuz gero, jaialdia amaitzeaz batera beharbada jarriko dute rokodromoa plaza erdian, artelanik ederranaren pare.

Munduko onenak datoz, eta ikuskizuna goi mailako izango da. Mutilen artean, Patxi Usobiaga

Gizonetan Usobiaga eta emakumeetan Irati
Anda dira euskal ordezkariek ezagunenak

Masterreko finala
irailaren 12an jokatu da, 22:00etatik aurrera

(egungo munduko txapelduna zailtasun frogan), Tomas Mrazek (munduko txapelduna birritan), Chris Sharma (askorentzako eskalatzailerik onena) eta Jorg Verhoeven (Munduko Kopako txapelduna igaz). Horiekin batera Magnus Midtboe (20 urte) eta Jacob Schuberten (18 urte) lana hurretik jarraitzea komeni da, etorkizun handiko gazteak baitira. Emakumeen artean, maila ez da kamutsagoa: Natalija Gros (boulderrean Europako txapelduna 2008an), Johanna Ernst (gaur egungo munduko txapelduna zailtasunean), Maja Vidmar (World Games-etako nazioarteko txapelduna aurten) eta Angela Eiter (hiru bider Munduko Kopako txapeldun izana). Adi Irati Andaren lanari ere; gasteiztarrak

hiru bider lortu du Euskadiko Txapelketa eta Munduko Kopan bosgarren egindakoa da. Ikusten denez, lehia segurtaturik dago Durangon.

Landako Erakustazokaren ondoko plazan garatuko da txapelketa; boulderra 16 metro garai eta 12 metro zabal da. Dur&Go Climbing Masterreko finalak irailaren 12ko zapatuan jokatu dira, 22:00etan hasita. Euskadiko txapeldun nor den biharamun eguerdian erabakiko da.

Autofinantzaketarako bidean, aurten sarrera ordaindu egin beharko da. Txapelketa ofizial denak ikusteko bonoa 15 euro da. Landako kiroldegian, Liburutegian, Pinondon eta Turismo Bulegoan daude salgai. ■ J.D.

EGITARAUA

Irailak 7, astelehena

- 09:30-13:00 eta 14:30-16:00. Ikastetxeetako taldeekin jokoak.
- 17:00-20:00. Gaztetxoei zuzendutako ekintzak.
- 18:00-22:00. Herri Blockaren lehen jardunaldia.

Irailak 8, martitzena

- 09:30-13:00 eta 14:30-16:00. Ikastetxeetako taldeekin jokoak.
- 17:00-20:00. Gaztetxoei zuzendutako ekintzak.
- 18:00-22:00. Herri Blockaren bigarren jardunaldia.

Irailak 9, eguaztena

- 09:30-13:00 eta 14:30-16:00. Ikastetxeetako taldeekin jokoak.
- 17:00-20:00. Gaztetxoei zuzendutako ekintzak.
- 18:00-22:00. Herri Blockaren hirugarren jardunaldia.

Irailak 10, eguena

- 09:30-13:00 eta 14:30-16:00. Ikastetxeetako taldeekin jokoak.
- 17:00-20:00. Gaztetxoei zuzendutako ekintzak.
- 18:00-22:00. Herri Blockaren laugarren jardunaldia.
- 19:00. Eskalatzailleek Block Masterreko blokeak muntatuko dituzte.

Irailak 11, barikua

- 09:30-13:00 eta 14:30-16:00. Ikastetxeetako taldeekin jokoak.
- 17:00-20:00. Gaztetxoei zuzendutako ekintzak.
- 18:00-22:00. Jaialdiaren hasiera. Herri Blockaren bosgarren jardunaldia.
- 22:00-24:00. Dur&Go Climbing Masterreko sailkatze fasea.
- 24:00-04:00. Herri Blockak jarraituko du.

Irailak 12, zapatua

- 10:00etatik aurrera eta egun osoz, umeeekin ekintzak: tirolina...
- 10:00etatik 22:00etara, Herri Block.
- 10:00etan. Euskadiko Txapelketarako sailkatze fasea.
- 22:00-24:00. Dur&Go Climbing Masterra.
- 24:00-04:00. Herri Blockak jarraituko du.
- 24:30. Jaia Plateruena kafe antzokian.

Irailak 13, domeka

- 12:00. Euskadiko Txapelketako finalak.
- 17:00. Block Masterra. Txapeldunen arteko desafioa.
- 20:00. Amaiera ekitaldia.

Jai-giroa ▶

Gura duenari eskalatzeko aukera eskainiko dio Dur&Gok

Txapelketak garatzen diren bitartean, argi dago protagonista nagusiak nortzuk izango diren. Hala ere, aste osoan zehar, antolatzaileek ahalegin berezia egingo dute eskaladaren mundua herri-tarrei eta, batez ere, gaztetxoei ezagutzera emateko. Egunero, astelehenetik zapatara, jasoko dute inguruko ikastetxeetako gazte-

txoen bisita. Horrez gainera, Herri Block ekimenak, probatu nahi duenari 33 bide dituen boluderrean ibiltzeko aukera eskainiko dio.

Bestalde, Diman egin ohi zuten moduan, eskalatzailleak bata bestearen aurka zirika apustuak egiten ikusteko aukera ere eskainiko du Dur&Gok. Parte-hartzaileek ibilbide bana disei-

natuko dute; ondoren bata bestearen ibilbidea osatzen saiatuko dira. Ekimen arrakastatsua izan ohi da, ikusmin berezia eragiten duena.

Egunero jasoko dituzte inguruko ikastetxeetako gaztetxoen bisitak

AMALURRA >



Mancomunidad de la Merindad de Durango
Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa



Edukiontzia horietako materialaren birziklapena, gorantza

Edukiontzia horiko ontzien bilketak materialaren %72,5 birziklatzeko aukera emon dau

1998an lanean hasi zirenetik, 58.537.600 kiloko bilketa egin dau Garbiker foru enpresak

Amorebieta-Etxanon dagoen lantegian bereiztu eta sailkatzen ditu Garbikerrek Bizkaia osoan bildutako ontziak

Garbikerrek, Bizkaiko hondakin kudeaketaz arduratzten den foru enpresak, 7.368.990 kilo ontzi bildu ditu urtea hasi zenetik udarainoko tartean. Edukiontzia horian itzitako ontzien bilketak (metala, plastikoa eta tetra brika) materialaren % 72,5 birziklatzeko aukera emon dau, eta ontzat jotzen dabe datu hori arduradunek. Hain zuzen be, Estatu espainiarreko datuak begiratu eta alderatuz gero, %10 gehiago birziklatzea lortu dogu Bizkaian.

Kontzientzia handituz

Etxeko zaborra sailkatzeko lana geroago eta ohikoagoa da jendartean. Atzean geratu da zabor guztia toki berean izteko sasoia. Emoten dauenez, ingurumengazko kontzientzia handituz doa, astiro-astiro bada be. Horren

ondorio da Garbikerren funtzinoa, baita 2009an jasotako datu positiboak be.

Atzera joanda, 2008an 9.202.449 kilotakoa izan zen bildutako hondakin kopurua. Beraz, aurreikusi leiteke aurtengo urtean zehar igo egingo dela birziklapena, kalkuluak eginda.

10 urte bilketan

Garbikerrek 10 urte pasatxo daroaz ontzien bilketa egiten, 1998an hasi zen-eta. Geroztik, eta 2009. urtea kontuan hartu barik, 58.537.600 kiloko bilketa egin dau foru enpresak, edukiontzia horietatik.

Lan hori guztia aurrera eramateko, Garbikerrek 14 ibilgailu erabiltzen ditu. Kamioi horreek garbia eta kutxa trinkotzailea daukiez. Garbikerren kamioiek

zaborra biltzen azken urteetan egindako kilometroen batuketa eginez, "1.274.581 kilometro egin dituztela ikusi leiteke", arduradunen berbetan.

Lantegia Zornotzan

